

**HEZKIDETZA
ETA PEDAGOGIA
FEMINISTEN
KONGRESUA**



**Begiradak
Esperientziak
Saretzeak**



IKERTZE

**Reconocimiento-NoComercial
CC BY-NC**

Koordinazioa: [Sorginlore Gizarte Elkartea](#)

Lan-taldea: Leire de Miguel Martínez, Amaia Txueka Uria, Oihan Martirena Iruretagoiena, Nuria Fernandez Sánchez, Lore Etxebarria Etxaburu, Assumpta Ayerdi Olaizola y Mainer Sagredo Escudero.

Itzulpena: [Bakun](#)

Diseinua eta maketazioa: [Labox Marketing y Comunicación](#)

Babesleak:



AURKIBIDEA

1. SARRERA. Leire de Miguel Martínez

4

2. HITZALDIAK ETA MAHAI-INGURUAK

8

- Hezkidetza gaur egun: ametsetik errealitatera. **Gema Otero Gutiérrez**
- Elkarrizketa: Hezkidetza eta Pedagogia Feministen esperientziak partekatuz begirada globaletik. **Linda Núñez** | **Cantera Nicaragua** eta **Oriana Sujei Ortiz Vindas** | **Imaginá Palabra**
- Mahai-ingurua: tokiko hiru praktika eraldatzailearen bizipenak eta erronkak. **Oriarte BHI** / **Lauaizeta Ikastola** / **Elizalde Herri Eskola**
- DESERAIKI. Aurreiritzi eta estereotipoak. Iruditeria deseraiki. **Xabier Odriozola Ezeiza** - Arreta
- ERAIKI I. Harreman osasuntsuak eta sexuen hezkuntza. **Nerea Sancho Esnaola** | **Arremanitz Kooperatiba**
- ERAIKI II. Komunitate-harremanak, elkarbizitza eta gatazkak. **Lucas Platero Méndez**

9

12

17

20

24

27

3. TAILERRAK | Deseraiki

31

- Genero-arauak eta gorputzak: zaurgarriak eta indartsuak gara. **Edurne Epelde Pagola** | **Emagin**
- Deseraiki: Estereotipo eta aurreiritziak, iruditeria kolektiboak. **Marian Moreno Llana**
- Etorkinei buruzko estereotipo eta aurreiritzien eragina hezkuntzan. **Jeanne-Rolande Dacogna Milkette** | **Biltzen**

32

38

41

4. BEGIRADAK PARTEKATUZ | Esperientzien azoka.

44

Tokiko praktikak ezagutzen irakasle eta elkarteen eskutik.

- Begirada kontzienteak | **Ikertze, Calcuta Ondoan** eta **Zubiri-Manteo BHI**
- Harrotu ileak | **Tabakalera hezkuntza** eta **Darkum Elkartea**
- 'Gu sortu ginen enbor beretik, sortuko dira besteak' | **Alboan** eta **Oriarte BHI**
- Transpatioa | **Elizalde Herri Eskola** eta **Tabakalera hezkuntza**
- Feminismoak eskolan | **Lauaizeta BHI**

45

48

51

54

56

5. TAILERRAK | Eraiki I

59

- Hezkidetza eta Aniztasuna. **Maddalen Ruesgas Rasines** y **Natasha Rueda Cárdenas** | **Goian**
- Tratu Onen Kultura Erotikoa: Ligatze Jatorraren Oinarriak. **Nerea Sancho Esnaola** | **Arremanitz Kooperatiba**
- Trans*exualitateak. **Lucas Platero Méndez**

60

63

66

6. TAILERRAK | Eraiki II

69

- Gatazkaren eraldaketa positiboa, gorputz- eta arte-esperientziatik abiatuta | **Tr3s Social**
- Hezkidetza ijito feministen begiradatik. **Tamara Claveria Jimenez** | **Amuge**
- Norberaren intersekzioak identifikatu eta pribilegioen/zapalkuntzen kontzientzia hartzetik botere harremanen asimetrien lanketa | **Hiruki Larroxa**

70

73

76

7. ONDORIOAK. Assumpta Ayerdi Olaizola

79

1. SARRERA



Datozen orrietan, Calcuta Ondoan Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeak eta Ikertze Kultur Elkarteak azaroaren 3, 4 eta 5ean antolatu genuen Hezkidetza eta Pedagogia Feministen Kongresuaren nondik norakoak jasotzen dira. Liburuxka hau egiteko arrazoia eta helburua ondorengoa da: Kongresua bertan era batera edo bestera parte hartu zuten pertsona guztiek egindako ekarpenek osatu zuten, eta uste dugu eduki hauek hezkidetzari ekarpen aberatsa egingo diotela. Hortaz, erabaki dugu hiru egun horietan online konektatu ginen hizlari, tailer-gidari eta parte-hartzaileen ekarpenen bilduma egitea, landutako ezagutzak gal ez daitezen, eta liburuxka irakurtzen duen pertsona ororentzat erabilgarri izango delakoan.

Ezin zitekeen bestela izan, eta kongresua eskerrak emanaz hasi genuen bezala, liburu honi ere horrela ekingo diogu. Lehenik eta behin, pantailaren beste aldean egon ziren eta kongresua osatu zuten 150 pertsonari eman nahi dizkiegu eskerrak, beraien bizitzan espazioa egiteagatik, gai honi denbora eskaintzeagatik eta iritzi, hausnarketa eta esperientziak jendartean partekatzeagatik.

Eskerrak eman behar dizkiogu, bereziki, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari ekimen hau babestu eta laguntzeagatik.

Kongresuaren sorkuntza eta antolaketa prozesuan, eragile ugari hartu zuten parte eta guztiak aipatu nahi ditugu: Alboan, Arremanitz Kooperatiba, Berritzegune Nagusia: Elkarbizitza eta Hezkidetza, Donostiako Udaleko Berdintasun, Gazteria, Hezkuntza eta Lankidetzaren Sailak, Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea, Aieteko Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-baliabideen Zentroa eta Unesco Etxea.

Kongresua osatu zuten hizlari eta tailer-gidarien dedikazio eta ahalegina bihotzez eskertu nahi dugu. Azkenean, aurrez prestatuta zituzten dinamikak astebeteko epean moldatu zituzten onlineko formatura!

Historia pixka bat ere egin nahi dugu, eta atzera begiratu, aurrera jarraitu aurretik, gogoratzeko hau guztia nola sortu zen. Calcuta Ondoan eta Ikertze elkarlanean aritu gara 2013tik Begirada Kontzienteak izeneko hezkuntza-programan. 2018an proiektua indartu eta bultzada eman nahian ginela, Calcuta Ondoaneko Eburne Gallorekin hezkidetza eta pedagogia feministen arloei dagokien topaleku bat sortzeko beharra ikusi genuen. Eta hortik dator kongresuaren azpititulua, horixe izateko **helburua**ekin jaio zelako: Begiradak, esperientziak eta saretzeak. Topaleku bat, azken finean! Bertan landu ziren eta hurrengo orrietan jaso ditugun **edukiak** hiru ardatz nagusitan antolatu genituen, betiere, pertsonen deseraiki eta eraikitzeke eraldaketa prozesuari ekarpenak egiteko helburuarekin:

- **Deseraiki:** Sexu-genero sistemari, binarismoari, normaltasun eta araei, maitasun erromantikoari buruzko iruditeria kolektiboan dauden estereotipo eta aurreiritziak.
- **Eraiki I:** Tratu onetan oinarritutako harreman osasuntsuak, gure gorputzez, erotismoaz eta plazeraz jabetzeko eta ahalduzko aukera emango digun sexuen hezkuntza eredu batetik abiatuta.
- **Eraiki II:** Interseksionalitatean, gatazken ebazpenean eta heziketa emozionalean oinarritzen diren harreman komunitarioak eta bizikidetzak.

Metodologia, eduki eta helburuen zerbitzura jarriz, aldakorra izan zen atal bakoitzean; hitzaldiak, aurkezpenak, tailerrak, mahai-inguruak, azoka... denetik izan genuen. Beraz, kongresuan gertatu zen bezala, liburuxka honetan mota askotako marrazkiak, testuak, idazteko eta adierazteko moduak topatuko dituzue. Ez gara batere zurrunik izan zentzu horretan, parte-hartzaile bakoitzaren hitzak eta estiloa errespetatu eta zaindu nahi izan ditugu, malgutasunez eta mimoz jokatzuz, prozesuei bere garrantzia emanez. Egileen aurkezpen eta testuekin batera topatuko dituzue bakoitzari dagozkien errelatoriak, galdera-erantzunak eta laburpen bisualak. Lan horiek egiten ibili dira Gorka Alvarez, Alazne Corral Pacheco eta María Zapata (Aise) errelatoriak jasoz, eta Birginia Pozo, Eneritz Ibarra eta Femgarabat-eko Bea Aparicio eta Janire Orduña laburpen bisualak eginez. Ondorio orokorrak Sorginloreko Assumpta Ayerdiren eskutik atera dira.


Kongresua ilusioz beterik antolatu genuen, pentsatuko duzun bezala, bizi dugun egoera “berezi” honetan azaroak 3 arte iristea ez zelako batere erraza izan. Hasierako ideia parte-hartzaileekin aurrez aurre egotea zen, eta errealitateak utzi ez zigun arren, guztia moldatu eta elkarrekin pantailen bidez topatzeko aukera izatea oparibat bezala bizitu genuen. Gogoz eta indarrez ekin genien, beraz, aurrean genituen ordu haiei guztiei. Espero dugu ordu horiei atera genien zuku guztiaren isla izatea hurrengo orriak.

Leire de Miguel Martínez

Mila esker

Bi urte hauetan gurekin egon diren bidelagunei eta aholkularitza taldeari: Edurne Gallo (Calcuta Ondoan - Setem), Ibon Arrizabalaga de Mingo (Arremanitz kooperatiba), Amaia Alberdi Ruiz de Alegría (Alboan Fundazioa), Iñigo Eguren Valea (Calcuta Ondoan), Marivi Fernandez Roldán (Berritzegune Nagusiko Aholkularia), Margaret Louise Bullen (EHU|HEFA|AFIT Antropologia Feminista Ikerketa Taldea), Itsaso Andueza Fernandez (Eskura: Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-baliabideen zentroa), Eva Quiroga Vázquez (UNESCO Etxea), Eider Ganboa Ruiz de Eguilaz (EHU |HEFA I), Estivaliz Aberasturi (EHU |HEFA I), Jose Miguel Correa (EHU |HEFA I), Miren Mancisidor (Donostiako udala - Gazteria), Arantxa Ferreras (Donostiako udala - Lankidetzta), Naiara Garate (Donostiako udala - Berdintasuna) eta Aitziber Aranburu (Donostiako udala - Hezkuntza).

Hezkidetzeta eta Pedagogia Feministen Kongresua Congreso de Coeducación y Pedagogías Feministas



agencia vasca
de cooperación
para el desarrollo



2.

HITZALDIAK

ETA

MAHAI-INGURUAK



Hezkidetzak gaur egun: ametsetik errealitatera.

Gema Otero Gutiérrez

AURKEZPENA

Hezitzailea, aholkularia eta ikerlaria da, hezkidetzaren eta haurtzarotik indarkeria matxistak prebenitzearen arloetan. Geografia eta Historian lizentziatua da, Sevillako Unibertsitatean. Genero eta Berdintasun masterra, Gizarte Zientzietako doktoregaia (Generoa eta Berdintasuna ikerketa-lerroan) eta Pablo de Olavide Unibertsitateko GIAS (Grupo de investigación de Acción Educativa) ikerketa-taldeko partaidea da.

Kultur ekoizpeneko ekimen onenaren MERIDIANA saria jaso zuen 2015ean, Emakumearen Andaluziako Institutuaren eskutik, SuperLola obrarengatik.

“SuperLola” eta “Lalo, el príncipe rosa” hezkidetzako ipuinak idatzi ditu, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako irakasleei zuzendutako 2017/2018 eta 2018/2019 urteetako hezkidetzak-agendarako, eta, besteak beste, Emakumearen Andaluziako Institutuaren #VaDelGualdadPásalo prestakuntza- eta ikus-entzunezko proiektua sortu du.

HITZALDIA

Hezkidetzak haurtzarotik indarkeria matxistak prebenitzeko eta desberdintasun patriarkalak ekiditeko sistema gisa ulertzen duen kontzeptualizazio labur batetik abiatuta, hura ikasgeletan eta haietatik kanpo aplikatzeko funtsezko helburuak azaldu ditu.

Irakasle eta gainerako gizarte-eragileentzat baliagarri izan daitekeen hezkidetzarako ibilbide bat proposatu du, gaur egungo heziketaren gabeziak modu kritikoan aztertuz, baita lorpenak eta aurreikusten diren etorkizuneko estrategiak ere.

Bestalde, hezkuntza-esparruan berdintasuna moda bat delakoaren ideia deseraiki du, hezkidetzaren genealogia eta historia pixka bat gogora ekarriz, egindako ibilbidea eta aurrean dagoena aztertu ahal izateko.

Amaitzeko, zenbait ideia eta estrategia eman ditu, baita gelarako baliabide zehatz batzuk ere, hezkidetzak sistematizatzen eta orokortzen lagun dezaketenak.

Hori guztia, betiere, bizitza errealean, ikasgeletako eguneroko errealtatearen adibideetatik abiatuta; testuliburu errealak eta hezkidetzako langileen esperientziak aztertuz.

HITZALDIAN PARTEKATUTAKOA

Hezkidetzaren orainaldiko proiektua da, baina baita etorkizuneko ere. Nahitaezkoa ez denez, hainbat ekimenen bidez mantendu eta garatzen da: hau bezalako jardunaldiak, ahalegin handia egiten duten irakasleak, familiak, ikasleen borondatea eta benetan horretan sinesten duten pertsonak, besteak beste. Kultura patriarkala eta androzentrikoa egitura ikusezina da, eta horregatik ez da ikusten haren mehatxua; horregatik, haurrek ez dituzte ikusten desparekotasun horiek zerbait kaltegarria bezala, eta azaleratu egiten dira. Hala, hezkidetzaren *gogaikarria* ez bada, ez du ezer aldatzen.

Haurrengandik ikasi behar da, entzun egin behar zaie. Eta kontuan izan behar da hezkidetzaren eta feminismoaren hezteko prozesua etengabekoa dela, ez duela amaierarik.

Hezkidetzaren ibilbidean, honako ardatz hauetan desikasi, trebatu eta jardun beharko litzateke:

- Espazioak berdintasunez erabiltzea,
- hitzezko eta ikusizko hizkuntza,
- maskulinitasun hegemonikoa eraistea,
- erantzunkidetasuna, eta zaintzak bizitzaren erdigunean jartzea,
- gizartean eta politikan parte-hartzea,
- hezkidetzaren afektibo-sexuala (*botere-harremanik badago, ez dago onespenezik*),
- patriarkatuaren baitako portaera sozial/pertsonalari kritika egitea,
- genealogia femeninoa eta feminista (*emakumeen kontuak besterik ez direla pentsatzeari uztea, "neskak kontuz ibili behar dutela"* esan ordez "*mutilak heziko ditugu eraso egin ez dezaten*" esatea, etab.),
- hainbat material erabiltzea (*Superlola, Lalo el príncipe rosa,...*).

GALDERAK

◆ **Nola egin diezaiokegu aurre ikasleen hezkidetzarekiko interes faltari?**

Maila pertsonalean konektatu eta umorearen eta hurbiltasunaren bidez hezten saiatu. Garrantzitsua da gustuko dituzten gauzetatik abiatzea: zer musika entzuten duten galdetu, youtuberrak, kirola gustuko al duten, zer sare sozial, zer erreferente dituzten, etab. Eta ez epaitu, adibidez, abeslari matxista bat aipatzen badute. Galderak egitea hobe da: *Zer iruditzen zaizue abesti honen letra?* Eta horretan oinarrituta proposamenak egin: *Datorren egunerako letra feminista duen abesti bat ekarri*, ea zer aurkitzen duzuen. Garrantzitsua baita ikasleek beraiek deserakitzea.

◆ **Hezkidetzaren erronkak eremu digitalean. Irakasleek ezagutzen al dute egungo gazteek hainbeste baliatzen duten eremu digitala?**

Asko du ikasteko gai horretan. Ez gara teknologia berrien garaian jaiotako belaunaldi bat, eta eremu birtuala dena inbaditzen ari da. Alde horretatik, garrantzitsua da pauso bat atzera eman eta ikasleengandik ikastea.

Sare sozialak matxismoz beteta daude, gizartea patriarkala baita. Erabili egin behar dira: ikasleek indarkeria matxistari buruzko tik-tok bideoak egin ditzakete, adibidez. Ikastetxeetan irakasleek ikasleen potentzial hori erabiltzen badute, zaintza egiten ari dira, "dena dakien" erreferente izateari uzten diote; ikasleek sentitzen dute entzun egiten zaiela, kontuan hartzen dituztela, eta dakitenari balioa ematen diote.

TODAS LLEVAMOS EN LA MEMORIA Y EN LA PIEL NUESTRA PROPIA HISTORIA DE INVASIONES Y VIOLENCIAS MACHISTAS



Hay que empezar en las **AULAS** desde muy jóvenes



La **COEDUCACIÓN** no es un abrigo que te quitas al llegar a casa



COEDUCACIÓN AFECTIVOSEXUAL



ACCEDEN AL PORNO COMO EDUCACIÓN SEXUAL



Coeducación DEBERÍA SER OBLIGATORIA



GEMA OTERO
Experta en Género e Igualdad

MATERIAL PEDAGÓGICO PARA CONTRARRESTAR

Mamá, ¿puedo ser una superheroína?



LALO EL PRINCIPE ROSA



DESAPRENDER

Dar la vuelta al txipirón para limpiarlo

A B
HAY QUE TENER BUENOS ARGUMENTOS PARA DESMONTAR

FORMACIÓN
coeducación
feminismo

ACCION

La coeducación sale adelante gracias a la **VOLUNTARIEDAD** de las personas que creen en esto

COEDUCACIÓN que se extiende como una mancha de aceite

NO NOS SIRVE EMPODERARNOS SI NO TENEMOS **AUTORIDAD**



Amaia Txueka
Dinamizadora preguntas

CONECTAR A NIVEL PERSONAL CON EL ALUMNADO
¿QUÉ OS GUSTA?
¿QUÉ OS DA MIEDO?
¿REFERENTES?
¡NO CUESTIONARLOS!



NO DEMONIZAR LAS REDES SOCIALES



La **virtualidad** es importante en tiempos de pandemia

HACER QUE EL ALUMNADO ACABE FUNCIONANDO COMO AGENTES SOCIALES

Elkarrizketa: Hezkidetzeta eta Pedagogia Feministen esperientziak partekatuz begirada globaletik.

Oriana Suje Ortiz Vindas eta Linda Núñez

AURKEZPENA

Oriana Suje Ortiz Vindas | Imaginá Palabra

Erdialdeko Amerikako landatartasuna lantzen duen hezitzailea, kultur kudeatzailea eta kazetaria da. Animazio soziokulturaleko teknikari formakuntzaren eta *La espiral* eredu pedagogikoaren sortzaileetako bat da. Eredu hori lau urtez garatu da, Costa Ricako estatuak finantzatuta, eta Mexikon eta El Salvadorren ere erabili dute. Antolaketa eta garapen soziokulturalerako tresna ludiko, artistiko eta pedagogikoak diseinatzen aditua da. Unibertsitateko irakaslea eta aholkularia ere bada.

Imaginá Palabra kolektiboan egiten du lan: artea eta ongizatea lantzen ditu kolektibo horrek, *Gure sinbologia pertsonalaren hizkuntza* metodo esperimentalean oinarrituta.

Linda Núñez | Cantera Nicaragua

Soziologoa eta Cantera fundazioaren gazteentzako programako hezitzaile koordinatzailea. Hezkuntza prozesuak bideratzen ditu gazteekin, Herri Hezkuntzaren ikuspegitik.

HITZALDIA

Oriana Suje Ortiz Vindas

Egun on saio hau gurekin konpartitzeko konektatzea erabaki duzuen guztiei. Eskerrak, baita ere, nire arbasoen leinuari, nire alboan egoteagatik eta ondorengo kontakizun hau partekatzen uzteagatik:

Ipuina: Duluítami, eguerdiko andrea.

Ipuinaren alderdi batzuk berriro aipatu nahi ditut nire hitzaldian:

1. Bizitzaren mundu-ikuskerara bat, naturarekiko harmonian oinarritzen dena, eta izatea dualtasunetik ulertzen duena. Gure sustrai kulturala indigena da, argi dagoenez, eta, beraz, Erdialdeko Amerikako gure gizarteetan (lanak eta prozesuak garatu ahal izan ditudan eremu geografikoaz arituko naiz) abiapuntua Iririarekin, lurrarekin, dugun loturaren ikuskera espirituala da; gu izaki bat besterik ez gara haren sarean. Agian, pentsatuko duzue zergatik hasi naizen hemendik. Erantzuna sinplea da: gizarte eta komunitate mailako erakunde ugari daude, gu bezala, ulertzen dutenak gure gorputz-lurraldearen defentsa eta zaintza ezin dela banandu amalurraren defentsa eta zaintzatik; ezin gara aritu harreman justuago eta bidezkoagoak bilatzeaz, gure basoak suntsitu eta urak pozoitu bitartean. Feminismo mota horri feminismo komunitario deitu diote hainbatek, Guatemalako maia indigena Lorena Cabnalek, esaterako.
2. Eta kulturarekin zerikusia duten pentsamendu-bide horiek aztertzen ari garenez, ezin esan gabe utzi lehen kontatu dizuedan istorioa Costa Ricako cabecar indigenen ahozko ondarearen parte dela. Cabecarrak nire herrialdeko indigenataldetik handienetakoak dira, bribriekin batera, eta gizarte-antolaketa matrilineala dute: emakumeak dira klanaren oinordekoak eta lurren jabeak. Besteak beste, familiaren

zaintzari ematen zaion garrantziagatik da hori. Beraz, esan behar dizuet gure istorioko pertsonaia, Duluítami, Eguzki andrea dela, eta kakaoa prestatzeko zeremonia-kargua emakumeena dela eksklusiboki.

3. Bestalde, gure eskualdeko azken aldiko testuinguruari aipamena egin nahi nioke. Pobrezia, herri osoen sarraskiak (indigena eta nekazarienak, batez ere), indarkeria bere dimentsio guztietan, migrazio behartuak, krimen antolatua eta baliabide naturalak ebastea dira, besteak beste, arazoetako batzuk. Korporazio handien botere politikoak alienatutako gobernu ustelen laguntzaz antolatzen dira arazo horiek, eta horrela, gure oihan tropikal exotikoan bizitza duina izatea gutxi batzuen pribilegioa bihurtzen da, eta haiek eskuratzea espezie endemiko bat berrezartzea bezain konplexua.

Gaur hizpide dugun gaira hurbiltzen hasteko, argi utzi nahi dut nire kidea eta biok zer egoeratan kokatzen garen kongresu honetako hausnarketa handiari heltzeko: Hezkidetza. Nola lor daiteke generorol tradizionalengandik aldentzeko prozesua zeharkakotasunez egitea eta harreman osasungarriagoetara hurbiltzen gaituzten praktikak zehaztea?

Duluítamiren ipuina itzuliz, gaur txokolate puru eta sendagarri baten nahasketa partekatzea gatoz, lur hauetan maitasunez egiten dena.

Birsortzeko Agertoki bat sortzea deitzen diot nik, eta hauek dira osagaiak:

- Kulturarteko elkarrizketa: Kulturaren egokitasuna
- Giza eskubideen defentsa: Prozesu sozialak eta komunitateak
- Gorpuztasuna: Konstruktibismoa, afektu-emozioak, sormen-prozesuak sustatzen dituzten metodologiak eta norberaren bizipen-diskurtsoak sortzea.

Linda Núñez

Hezkidetzako prestakuntza-prozesuak

CANTERA Komunikazio eta Herri Hezkuntza Zentroak esperientzia du emakumeen eta gizonen jabekuntza-prozesuak garatzen, genero-berdintasuna sustatzen eta hiri- eta landa-komunitateetako gaitasunak indartzen.

Prozesu horiek eraikitzeko hainbat ikuspegi eta planteamendu erabili dira, betiere gizarte justuagoa eta bidezkoagoa eratzen laguntzen dutenak; genero-berdintasunezko, indarkeriarik gabeko gizartea, bizitzari aitorpena egiten diona.

CANTERAK gazteentzako prestakuntza integraleko programa bat garatu du, eta bertan hainbat metodologia integratu dira. Izaki bizidun guztiak errealitate beraren parte garela ulertzen dugu, eta dena lotzen duen harreman-sare batean konektatuta gaudela, antzinako garaietatik gaur arte.

Sistema horren parte garela onartzen dugu, eta ez boterean eta kontrolean oinarritutako sistemaren jabeak eta erdiguneak (hori paradigma antropozentrikoa litzateke). Horrek harreman mota

berriak bultzatzera motibatzen gaitu, gizonen eta emakumeen arteko harremanetatik hasita, gizartearen eta naturaren artekoetatik; emakumeen gorputzaz gain, naturaren baliabideak menderatzen eta kontrolatzen dituen kultura patriarkala hausteko.

Harreman berri horien ezaugarriak dira elkar onartzea, balioestea eta errespetatzea. Hemen lehentasuna bizitza zaintzea eta babestea da, eta helburu nagusia bizitzarekin, historiarekin, gure emozioekin konektatzea. Prozesu horiek bideratzen dituen metodologia bizipenen bidezkoa da; ez da ezagutza teorikoa soilik, praktikoa ere bada.

Ikuspegi horretatik heltzen diegu komunitate- eta hezkuntza-prozesuei, eta honako hauek ditu oinarrian: pentsamendu kritikoa, Pablo Freirek planteatutako herri-hezkuntzaren izaera eraldatzailea eta dialogikoa, eta Rolando Toro zientzialari txiletarrak aurkeztutako espiritualtasun-eredua, sorkuntzan eta hezkuntza biozentrikoaren erudian oinarritutakoa.

Printzipio biozentrikoak gizakiaren dimentsio asko hartzen ditu kontuan: fisikoa, biologikoa, espirituala, psikologikoa eta soziala, eta gainerako pertsonekin, ingurumenarekin eta norbere buruarekin integratzen ditu.

Giza diziplina eta portaera guztien erdigune eta abiapuntu gisa jartzen du bizitzarekiko errespetua, ez bakarrik gizakiena, baizik eta izaki bizidun guztiena”¹.

Hezkuntza-prozesuen ikuskera humanoa eta humanizatzailea

Lantzen ditugun prozesuak afektibitatea berriro heztean oinarritzen dira, edozein izaki bizidunen aurrean gizakiak dituen indarkeriazko eta nagusitasunezko portaerak desikastean.

Ikusmolde hori pertsonengan izaera humanoa eta humanizatzailea sustatzean edo garatzean oinarritzen da. Hezkuntza-ikuskera horren enfasia ez da soilik ezagutzen transmisioa, baizik eta aintzat hartzea, abiapuntu gisa, gizakiek beren errealitateaz, bizipenez eta inguruneaz duten berezko ezagutza. Aurretik zer formakuntza duten, zer rol dituzten, zer ikuskera dituzten... hori dena pertsonen portaeren parte da, baita zer iritzi duten haiekiko ere. Hor sartzen dira pentsamendu kritikoa, sistema zalantzan jartzea eta eraldatzea edo berriro hezteak.

Garrantzitsuena da pertsonen duten ezagutza enpirikoaren balioa onartzea eta ezagutza horiek balioesteko/zabaltzeko/eraldatzeko aukera emango duten elkarriketa-prozesuak sortzea. Hemen beti aurkitzen ditugu esklabo bihurtzen gaituzten rol horiek, agian izan nahi ez dugun norbait bilakatzen gaituzten arren, onartzen ditugunak, probetxua atera diegulako edo bizi-praktika horien aurrean kritiko izateko aukerarik izan ez dugulako. Bete egiten ditugu, eta kitto. Ikuspegi hori ez da justifikatzeko, baizik eta jabetzeko zer hezkuntza-prozesu egin behar den eraldatu ahal izateko.

“Hezkuntzak ez du mundua aldatzen: mundua aldatuko duten pertsonak aldatzen ditu” Pablo Freire

¹ La educación biocéntrica en su dimensión social. Ruth Cavalcante. 2012ko Hezkuntzaren Munduko Foroan egindako hitzaldia.

HITZALDIAN PARTEKATUTAKOAK GALDERAK:

◆ *Nola iristen zarete gazte horiengana, familia horiengana?*

L. Núñez: Kalera irteten gara, antzerkia, dantza, pintura... erabiliz harrapatzen ditugu. Eta iristen direnean, prozesu guztiak lantzen ditugu. Ikastetxeetara gure jardueretan parte hartu duten gazteen bidez iristen gara. Haiek eskatzen digute joatea, ikusten dutelako ikastetxeetako indarkeria, diskriminazioa.

O. Sujei: Auzoetan eta komunitateetan antolatuta dauden taldeekin aritzen gara; eta lan interseksionala egiten dugu hezkuntza- eta aldaketa-prozesuak sortu nahi dituen komunitateko udalerriekin, artistekin, komunitate-liderrekin, emakume antolatuekin... hitz eginez.

◆ *Espiritualtasunaren eta Lurrarekiko loturaren inguruan egiten duzuen lana azal dezakezue?*

L. Núñez: Lurretik gatoz; gure bizitzaren historia, gure sustraiak ezagutzea da bizitzarekiko lotura. Teoria sistemikoa lantzen dugu: sistema baten parte gara; beraz, sistema aldatzeko beharrezkoa da gu aldatzea. Hor hasten da espiritualtasunaren lana, gure ingurunean dagoenaren egiazko balioa berreskuratzen lagunduko diguna.

O. Sujei: Gazteek ikasten dutenean beren burua ez epaitzen eta jabetzen direnean beren gorputzak ondo daudela bere horretan, dena ondo dagoela beren baitan, alderdi espiritualean sartzen dira. Praktika tradizionalaren erritua ateratzen da eta bakoitzak bere bizipenetik erabiltzen du. Gure kulturak abiapuntuak, sinbologia sakonak, jolasa ematen dizkigu. Dimentsio mentaletik, batzuetan zailagoa da.

◆ *Gazteekin deseraikitze hori lantzen duzue, familiek haiekin konektatzea lortzen duzue?*

L. Núñez: Batzuetan bai, gurasoekin bizitzaren zentzua lantzen dugulako, haurtzaroan zituzten beldurrak eta beharrak gogora ekartzen dituztelako, ametsak (askok bete ez zituztenak)... eta horrek seme-alabekin lotzen ditu. Beste batzuetan ez. Bizitzaren zentzuarekin bat egiten dutenean, gazteak beren bizi-proiektuak sortzen hasten dira. Behin, neska gazte batek, bere proiektuan, sendabidearen parte gisa, aita eta ama bilatzea erabaki zuen, baina haiek ez zuten ezer jakin nahi izan. Horregatik egiten dugu lan bakoitzak bere ingurunea sortzeko gaitasunak garatzeko, onartuz mundua ez dagoela beti gure neurrira eginda. Eskerrak ematen dizkiete gurasoei bizitza emateagatik, eta, gero, beraiek erabakitzen dute zer egin harekin.

O. Sujei: Seme-alaben prozesuetan, gurasoak nahasita gelditzen dira, eta horrek harremana aldatzeko aukera ematen du.

ERRONKA

O. Sujei: Zer botako diogu gure txokolate-eltzeari besteekin partekatzeko? Eltzeari etengabe eragin behar zaio; izan dadila topaleku bat, oreka eta hazkunde handikoa.

ORIANA SUJEY
Imagina Palabra

IBON ARRIZABALAGA
Arremanitz
Aurkezlea

LINDA NUÑEZ
Cantera Nicaragua

SEGÚN LOS MAYAS HOY ES UN DÍA DE ENERGÍA FEMENINA

TODO ESTABA EN TINIEBLAS, "KAUÓ" (SOL) VISITÓ A 5 SEÑORAS QUE VIVEN EN EL CIELO

EN NICARAGUA NO EXISTE LA COEDUCACIÓN

Cantera

PROCESOS EDUCATIVOS en busca de IGUALDAD

Búsqueda de libertad

Usar el Arte para la libertad

LIBERTAD

OPRESIONES DEL SISTEMA

opresiones del sistema

TEATRO

BAILE

PINTURA

COSMOVISIÓN INDÍGENA

DULAITAMÍ MUEVE EL DELICIOSO CACAO

DEFENSORAS

Vida/Territorio /Tierra /Agua

MÁS LIGADOS AL INDIGENISMO

MIRAR OTROS MODELOS

RECONOCER LOS TEMORES

Búsqueda de la CORPORALIDAD

TODOS ESTAMOS INTERCONECTADOS

La importancia de la conexión con el entorno

MIRAR HACIA ADENTRO

CONECTAR CON NUESTRA HISTORIA

CONVIVENCIA SIN VIOLENCIA

TRABAJAR CON LAS FAMILIAS

salimos a la calle para buscar a los jóvenes

Para saber qué queremos

CONOCER NUESTRA HISTORIA

Necesidad de diálogo intercultural para la DIVERSIDAD

Trabajar desde otros parámetros distintos Desde el contacto y la escucha.

EL CUERPO ES

generar un escenario donde todo es posible

CÓMO TRATAR TEMAS COMO EL EMBARAZO ADOLESCENTE

LAS NIÑAS NO ACCEDEN A LOS ESPACIOS LIBRES

NUESTRO PRIMER TERRITORIO

Mahai-ingurua: tokiko hiru praktika eraldatzaileren bizipenak eta erronkak.

Oriarte BHI / Lauaizeta Ikastola BHI / Elizalde Herri Eskola

AURKEZPENA

- Matti Navas Los Arcos, Donostiako Lauaizeta ikastetxeko hezkidetzaren arduraduna eta Fisika-kimikako eta Biologiako irakaslea. Urteak daramatza hezkidetzaren alderdi ezberdinak lantzen, hitzez eta ekintzaz, eta hori dena, zuzendaritza taldearen eta irakasle taldearen babesarekin. Gaurko mahai-inguruan, azken hiru urteetan ikastetxeko gazteekin sortu duten talde feministari buruz arituko zaigu.
- Irma Arnaiz Guillen, Lasarteko Oriarte institutuko irakaslea eta ikasketaburu-alboko dugu. Azken lauzpabost urteetan Itsaso Garmendia Oriarteko irakaslearekin eta Alboan-eko Amaia Alberdirekin batera garatu duten 'Gu sortu ginen enbor beretik, sortuko dira besteak' ekimena dakarkigu.
- Ibon Mendoza, Oartzungo Elizalde Herri Eskolako Lehen Hezkuntzako Gorputz Hezkuntza irakaslea. *Transpatioa* izeneko esperientzia aurrera eramaten ari dira Tabakalerako hainbat hezitzaile, artista eta Guraso Elkarteko hainbat gurasorekin batera.

MAHAI-INGURUA

Askotan entzuten dugu hezkuntzan, orokorrean, gauza asko daudela oraindik egiteke hezkidetzaren mailan, badela garaia ikastetxeak hezkidetzaille bihurtzeko, eta hori esaterakoan, honako alderdiei erreparatzen diegu: erabiltzen dugun hizkuntza ez dela berdinzalea, unitate didaktiko eta edukietan dauden erreferenteak androzentrikoak eta eurozentrikoak direla, patioaren eta, orokorrean, espazioaren erabilera desorekatua dela eta indarkeria asko gorpuzten direla, zaila dela ikasle guztien beharrak eta ahotsak entzun eta kontutan hartzea, curriculumaren eta ezkutuko curriculumaren bidez genero-sozializazio binarista iraunarazten dela, eta abar luze bat.

Hezkidetzaren eta Pedagogia Feministen Kongresu honetan, beste gauzen artean, ikastetxeetan egiten ari diren hezkidetzako eraikitze-prozesuak ezagutu nahi izan ditugu. Horretarako, hiru ikastetxe gonbidatu ditugu eta horien ordezkariak ditugu gurekin.

Hiru ikastetxeetan aurrera eramaten ari direnari buruzko azalpenak *Esperientzien azoka* atalean (*Begiradak partekatuz*) dituzue irakurgai. Jarraian, mahai-inguruan esperientzia bakoitzean zehar irakasleek aipatutako hainbat gako edo aholku biltzen dira, antzeko praktikaren bat aurrera eraman nahi duen ikastetxe, elkarte edo hezitzaile taldeentzat.

MAHAI-INGURUAN PARTEKATUTAKOAK

Zer gako edo aholku emango zenizkioke antzeko prozesu bat martxan jarri nahi duen ikastetxe edo irakasle talde bati?

- Zuzendaritza taldearen eta irakasle taldearen babesarekin errazagoa da halako esperientzia hezkidetzaille bat aurrera eramatea.

- Helburu txikiak jarri: halako aldaketa handietan arriskua dago lan-taldeko kideak erretzeko, helburu egingarriak eta tamainakoak jartzea garrantzitsua da, horrela, urrutirago heltzeko eta (deseraikitze-erakitze) prozesua eramangarria izateko (ahal bada taldean, eta ahal bada, babesarekin).
- Hezkidetzeta plana izateak babesa ematen die hezkidetzeta mailan lanean ari diren irakasleei.
- Hezkuntza-komunitate bezala aritu, komunitatea osatzen duten kide ezberdinekin elkarlanean: gurasoak, jangelako langileak, garbitzaileak, irakasleak eta, beste kasuren batean, kolaboraziorik baldin badago, hezitzaileak, artistak...
- Kanpo-eragileekin sinergiak sortu: kanpoko eta hezkuntza-komunitateko beste eragileen aholkularitza baliagarria izaten da.
- Aldaketa horretan lanean ari den lan-taldea zaindu; lorpenei baino, prozesuari eta harremanei garrantzia eman.
- Azpimarratzekoa da hezkidetzeta arduradunak prozesu horretan sinetsi behar duela, eta, ahal bada, irakasleak jardunaldi erdia liberatuta izatea komeniko litzateke, hezkidetzari denbora eskaintzeko.
- Teoria eta praktika uztartzeko aukera bilatu: teorizatu eta aldi berean praktikara eraman.
- Haur eta nerabeei entzun, eta proposatzen dutenari kasu egin, haiekin giroa sortu, taldearen beharrei erantzunez inprobisatzeko aukera bilatu.
- Feminismoa helduen ikuspuntutik ikusi eta bizitzeaz gain, haur eta gazteek gai horretan duten ikuspuntua lehenetsi, euren prozesua eta euren beharrak errespetatu.
- Batzuetan talde bereizietan (ez mistoetan) lan egiteko beharra ikusi da: sozializazioak desberdin eragiten digu, eta beraz, batzuetan beharrezkoa da neskek eta mutilak lan-talde bereizietan jartzea, espazio seguruetan jarduteko, eta ondoren, talde handira itzultzean, bakoitzak landu duena partekatzeko (nahi badute).
- Nerabeen beharrei entzun. Batzuetan hori behar dugu: entzun eta entzunak izan, beste dinamika eta gauza handiagorik gabe. Eroso egongo garen espazioak sortu, denok sartzen garen espazioak, eta entzun. Mutilen mamua kendu eta gazteei espazioa eman, gazteengan sinetsi.
- Iritzi kritikoa sustatu, hezkidetzeta eta konpromisoa bultzatu.
- Ausartu horrelako proiektuak aurrera eramaten eta parte hartzen.
- Transbertsaltasuna/zeharkakotasuna lantzea: goitik behera eta ezker eskuin, hezkuntza-komunitate osoaren ekarpenak behar dira eraginkorra izan dadin. Zeharkakotasun hori gorpuzteko bidea izan daiteke, adibidez, Hezkuntza Saileko II. hezkidetzeta planeko zortzi zutabeak ikasgai guztietako mailaz mailako programazioetan sartzea, baita ondo atera diren ekintzak sistematizatzea ere.
- Bakardadeari ahizpatasunaren bitartez erantzun: orain arte aipatu ez diren arren, ohikoak izaten dira prozesu osoan zehar bakardadea, zenbait irakasle, guraso eta ikasleren jarrera matxistak eta denbora eta baliabide falta, besteak beste. Horien aurrean, babesa taldean topatu.
- Ikasleei egiten utzi: aldaketa-prozesuaren subjektu aktibo izan daitezen autonomiaz jokatzeko utzi.
- Aurrera begirako erronkak argi izatea: patio hezitzailea, irakasleen formakuntza zehatza, eraso sexistei erantzuteko protokoloa...



TOKIKO 3 PRAKTIKA ERALDATZAILAILEEN

"GU SORTU gimen
ambari beretik
Sartuko dira besteak"

Oiarte B.H.I.

IRMA ARNAIZ

Hezikidetzaren Planak
egin eta bete!!

INSTITUTUA
FEMINISTA DA
edo ez da!!

marzok 8

Barne
CV
feminista

PLAN INTEGRALA
Oiarte institutua

hasi

buka

TRANSBERTSALA

Konplize
ugarri
komunitatean

Zabuntzak
abiaruntu



ekin & egin

erantzaldi
protokoloa

Protokoloa
feminista
pala zaiqui

lantalde potente baten
Zailtasunak

Konfiantza eta erreferentzia lortu
abuzpatasunetik

Sabitu, sinia egin
taldeak eta lekualde garrantzitsuek dira

Fazientzia eta INDIKATZA

Enapimena
Autodidaktika feminista
tailerretan bati legezkoekin

Lavaizeta ikastola B.H.I.

MATTI NAVAS

2018/19 sasitaldea

2019/19

hauspasa programan parte
TALDE FEMINISTA

Zailtasunik ez

batzuk politikako

1-4 ordutegia ezin bete!

Matti feminista: pitzadak, eskuek asko!
femi-zatiagatik

HEZKIDETZA
PROIEKTUA

eskola goztieta!!

+ dedikazioa

asko ikasi dut nik

BERDINEKIN asko ikasten da
ikastolak => ikasleekin KLIK!!



ESPazio SEGURUA
behameskora da

talde batek



eskola osan
ERABIN du

errespetua eskatu

dijose harrar
ANASATU

laguntza badago askoz lobe
irabazteko

Minifone - behandres lanera

Aurten taldea bertan behera COVID-ak
talde nahasketa zailien duela

bizipenak eta erronkak

Epizande Herri eskola

IGON MENDOZA

Patibon laneraren disoreka
gurazok eraldetuta psikoa bultzatu

Pobatu - material desberdinen
kontenedorea

Espazioa bai harremanak ere bai
tokia jami eta landu

hezkuntza
komunitate
implikatu

Behar txikiak frustrazioak kudeatzek

ez dugu indar berekin
konektatzea lortu

Taldea batzuk ez dira proiektuaren parte
Suntitu

COVID atzerapena

lantalde sendoa osatu
zuzendaritzarekin bertan

Kampoko laguntza eta
esperimentuak bitatu

Diru iturriak bitatzeak zailtasune
anzolan ugari
haurren litz bertan izan

mun sortzen dira kezak? gure patibon?

enuntzi.eiustratzenle@gmail.com

ERRONKA
IKASLEAK
AHOLKURAK

DESERAIKI. Aurreiritzi eta estereotipoak. Iruditeria deseraiki.

Xabier Odriozola Ezeiza-Arreta

AURKEZPENA

On: Giz Elkarteak 21. mendearen hasieran sortu zen eta hasiera batean berdintasunean gizonen inplikazioa bilatzen bazuen ere, berehala ohartu ginen sistema patriarkala gainditu nahi baldin badugu emakumeekin batera besoz beso lan egin beharra dagoela. Geroztik hamaika ekimen, jarduera, proposamen, ikastaro, hitzaldi, mahai-inguru, prentsaurreko, formakuntza eta abar ematen aritu gara, bai Euskal Herrian, bai estatuan eta atzerrian ere.

Gaur egun gure zentroa **Ez:berdin Zentroa** da: gure ekimenen habia eta gune nagusia da, eta bertan eta bertatik berdintasun egoera errealean bila eguneroko praktikan txertatzeko ekimenak eskaintzen ditugu.

Maskulinitate zein feminitate berriak ikertzen ditugu, birpentsatuak, berreraikiak eta askatzaileak, eta haietatik abiatuta antolatzen dugu gure bizi-ikuspegia. Hezkuntzaren bidez eta oinordetzan jasotako genero-identitate murriztaileen ondorioak zein hondakinak behatu, aztertu, aldatu eta alboratu egiten ditugu, genero heteropatriarkalaren hesiak eraisteko, eta guretzat ez ezik, gure inguruko eta ondorengoentzat bestelako giza harreman batzuek osatutako esparru askeagoa eta zabalagoa eskaintzeko

asmoz. Horretarako, sentsibilizazio eta kontzientziazio-taldeak osatzen ditugu: emakumezkoen 8 talde eta gizonen 10 talde biltzen ditugu hamabostean behin helburuok betetzeko.

HITZALDIA

Egitura sozial, kultural eta politiko patriarkaletan jaiotako, hazi eta hezten gara, beraz,

- zailtasun nabarmenak garatu ditugu guztiok gure buruarekin eta beste pertsonekin ditugun harremanetan,
- eta pertsonalki, tolerantzia maila handia garatu eta naturalizatu dugu sexismoaren aurrean, oro har, eta, gizonok, bereziki, matxismoaren aurrean ere bai. Horrek eragiten digu zurrutu ezin dena zurrutzea eta agerikoa dena ez ikustea.

Gure sehaskan, burkoa sexismoz eta zapalkuntza patriarkalez eginda dago, beraz, kosta egiten zaigu esnatzea eta ohartzea. Hiru iturri nagusitatik edan ohi dugu gizakiok fenomeno hau:

1. Aitarengandik **matxismoa**: barneko "feminitatea" ukatu eta ezabatzea. Indarkeriaren poderioz, zapaltzailearen irudia (aitarena) miresten ikastea, norberaren gizatasuna ukatu denean, eta, ondorioz, bereziki zapaltzailea ez den nortasuna mespretxatzea (amarena).
2. Amarengandik: berak indarrez barneraturiko **sexismoa**: Ama ere patriarkatuak baldintzatu du, eta seme-alaben (bereziki, semeen) adierazpen emozional eta sentimental naturala ukatzen kolaboratuko du. Aitak hala nahi du, gainera, eta amak

aitarekin gatazkarik ez izateko, patriarkatuak eskatzen duen harreman zapaltzailearen aurrean besterik eratzeko aukera baztertu beharko du, hirukoaren (aita/ama/semi-alaba) lotura ez apurtzeko.

Baina hurbilenekoak ez dira iturri bakarrak. Gizarteratzen hasi ahala, esparru desberdinetatik edaten dugu patriarkatua, eta sexismoz bustitzen jarraitzen dugu.

3. Zuzeneko familia-giroarekin batera **misoginia**: ingurune horretan zuzena eta jasagarria denaren adierazpen posible bakarra baimentzen da, eredu maskulino inposatzailea. Amak amore eman behar du aitzak dakarren patriarkatuaren proposamen hierarkikoaren aurrean, familiaren ardatza suntsituko duten gatazkak ekidin nahi baditu, eta horrela, lekua egiten dio gainerako giza-adierazpenak mespretxatzeko, baliogabetzeko, zigortzeko edo erreprimitzeko joera matxistari.

Semi-alabek honela irakurtzen dute amaren jokabide hori: emakumeen adimena murrizteak/hertsitzeak ahalbidetzen duela gizonen jokabidearen hedatzea/zabaltzea. Maitasun eta intimitate sakoneko harremanetan **irtenbide femeninoa** amore ematea dela (haustea baino lehen), eta **irtenbide maskulinoa** proposamenak inposatzea dela.

Handik aurrera, gutxitan esperoko dute emakumeengandik benetako irtenbiderik iristea, gehiago espero dituzte gizonengandik. Horiengan bilatu eta topatzen dituzte erreferente sozialak: irakasleak, aita santua, lehendakaria, heldu nagusiak,

alkatea, aita, kaleko lagunak, filmak, literatura, komikiak, eleberriak...

Hala, mutikoen emakumeen/nesken/arreben aurkako indarkeria, abusua, mespretxua eta koipekeria ia-ia familia-ordena gisa bizitzen dute, "maitasunen" kudeaketaren isla balira bezala. Arrebarekin jolasteari utzi nahi izango diote gero, aspergarriak diren edo miresgarriak ez diren pertsonen eta ekintzen multzokoak direlako neskak; eta maskulino inposatzailea, lehiakor eta indarkeriazkoa miretsiko dute. Beste aldean dugu alaba: amak laster esango dio ez jolasteko anaiekin (mutilekin), astakiloak dira eta, min hartuko duzu, zeu ere mari-mutil bihurtuko zara...

Urteak aurrera joan ahala, deseraikitzeke dauden erreferente sozialak etengabe aurkitzen dituzte neska-mutilek. Horrelako erreferente desegokiak eta deseraiki gabeak esparru eta garai guztietan topatzen dituzte: lanean, politikan, aisialdian, lagunaren artean, ekonomian, erlijioan, akademian... Horrela, izaera patriarkala bermatuta gelditzen da.

HITZALDIAN PARTEKATUTAKOAK

Nola egin dezakegu lan gizona zko berdintasunaren alde? Xabierrek ez ditu aldaketa asko nabaritu azkenengo 35 urteetan. Patriarkatuaren belaunaldiz belaunaldiko transmisioa ez da aldatu. Gauza batzuk aldatu dira: nola aurre egite diogun eta nola kokatzen garen, eta zer egitura antolatzen ditugun. Baina orokorrean, sehaskan hasten den genero arrakala hori errepikatu egiten da.

Egitura sozial, kultural eta politiko patriarkal batean jaio eta hezi gara. Ondorio nagusia da zailtasunak dauzkagula sexismoa, matxismoa eta zapalkuntza patriarkalaren adierazpenak hauteman eta horiei aurre egiteko. Aldean daramagu matxismorekiko tolerantzia maila berezi bat, patriarkatuak sorgortu gaitu.

Desberdinkeria aurre egiteko, azken 15 urteetan bi ardatz landu ditugu gizon taldeetan: sentsibilizazioa eta kontzientziazioa. Menderatze maskulinoari, heteroarauari eta misoginiari aurre egiteko tresna praktikoak, egunerokoak eta errealak eskaintzen ditugu.

Azaleko eta lege-mailako aldaketak egin badira ere, nabari da erakundeak ez daudela lerrotuta parekidetasunarekin.

Zero eta 30 urte artean, ez daukagu tresnarik patriarkatuari aurre egiteko. Etxean, sehaskan, jaso ditugulako eredu matxistak. Nolakoak ziratekeen gure harremanak eta gure buruarekiko harremana ondare hori jaso ez bagenu?

- Lehen urteetan etxean jasotzen dugu belaunaldien arteko transmisio bidez, eta guk hurrengo belaunaldira igorriko dugu nahi gabe.
- Jolastokian mutilek mutilen artean eraikitzen dituzte beren izaera eta harreman-ereduak, eta horiek neskak mespretxatzean eta baztertzean oinarritzen dira.
- Gizon taldeetan nabaritzen dugu txikitatik bideratzen gaituztela bizitzaren eta feminitatearen ukaziora. Barneko feminitatea zapaltzen irakasten digute, gero kanpoko feminitatea zapaltzeko. Bizitza mirestetik maskulinitatea mirestera igarotzen gara, eta feminitatea bigarren mailan jartzen dugu.

Maskulinitate tradizionala naturalizat jo eta balioa ematen diogun bakoitzean, heteropatriarkatuari bidea zabaltzen diogu. Adibidez, kirol albistegi guztietan patriarkatua ospatzen da, modu biolentean, elkarri joka. Hori eredutzat hartzeak indarkeria eta bullying-a bultzatzen ditu.

Amaitzeko, ezin dugu ulertu gure sexismoak duen eragina emakumeengandik ikuspuntuak, bizipenak eta lekukotzak jasotzen ez baditugu. Deseraikitze hau elkarrekin egin dezakegu.

Begiradak
Esperientziak
Saretzeak

Deseraiki I
Xabier Odriozola

35 urte
maskulinismoa
behatzen

tresnak
matxismoa
antzemateko
eta antolatzeke

Lan ardatzak:
sentsibilizazio
eta
kontzientziazioa
« Deseraikitze
PROZESUA »

gizonak:
“ feminismoaren alde
egitea, gure alde
egitea da ”

askapen
PROZESUA

PATRIARKATUA

matxismoa
sexismoa
homofobia
misoginia

Txikitatik jasotzen dugu
matxismoa

FEMINISMOAREN
UKAZIOA
miResmenena:
EREDU
maskulinoa

menderatze
patriarkalaz
ohartu!!

berdintasuna @BikitxvB

ERAIKI I. Harreman osasuntsuak eta sexuen hezkuntza.

Nerea Sancho Esnaola | Arremanitz Kooperatiba

AURKEZPENA

Nerea Sancho Esnaola psikologian lizentziatua da, eta sexologian aditua. Azken 20 urte hauetan sexologiaren arloan egin du lan: unibertsitatean irakasle aritu da, sexu eta bikote terapia egiten, sexu hezkuntza alorreko materialgintzan eta dibulgazioan, besteak beste. Egun Arremanitz Kooperatiban egiten du lan, eta Tratu Onen Kultura Erotikoa sustatzeko proiektuaren arduraduna da.

Arremanitz Kooperatiba: 10 urteko ibilbidea du Tratu Onak, Parekidetasuna eta Sexologia lantzen. Hezkuntzan eraginez jendartean eraldaketa bilatzen duen profesionalen lan-taldea da.

HITZALDIA

Jendartean dauden sexuen arteko botere-harreman hierarkizatuak hezkuntza eremuetan ere islatzen dira. Maila, une eta espazio anitzetan gertatzen dira zapalkuntzak eta indarkeriak. Eraso sexistak dira tratu txarren zuzeneko adierazgarriak, hau da, izebergaren punta. Baina ikastokietan, jolasleketan edota aisialdi elkarteetan, egunerokotasunean naturalizat jotzen diren askotariko jokabide, uste eta jarrerak betikotu egiten dute egiturazko indarkeria.

Hortaz, oinarrira jo behar dugu, eta sexuen arteko bereizkeriari aurre egin, estereotipatutako rolen banaketa zurrun eta hierarkizatuak ez baitu ahalbideratzen tratu onetan oinarritutako hartu-emanak eraikitzea. Pertsonen arteko harremanetan maitasuna, erotismoa eta sedukzioa sartzan direnean, desoreka hori areagotu egin ohi da. Ezinbestekoa dugu, beraz, indarkeriaren antidoto gisa, parekidetasuna, autonomia pertsonala, errespetua eta bakearen, hau da, Tratu Onen norabidean doazen balio pertsonal eta kolektiboak ereitea. Horregatik guztiagatik, Arremanitz kooperatibak biziki lan egiten du sexudunen arteko tratu onen kultura sustatzeko. Indarkeriari aurre egiteko metodologia eraldatzailea eskaintzen du. Izan ere, hausnarketa egiteaz gain, hezkuntza prozesuak eta babestutako esperimenezko praktika kolektiboak abiatzeko apustua egiten du.

HITZALDIAN PARTEKATUTAKOA

Arremanitzek hurbileko eskalan jartzen du fokua, gertutasuna landuz eta identitate anitzak batuz.

“Ligatze jatorra” kontzeptua erabiltzen dute lan egiteko. Bai banako mailan bai komunitate mailan. Zertan datza? Nagusiki, zaintza erdigunean jartzean: nork bere zaintza, sare afektiboarena eta komunitatearena.

Eskala sozial desberdinetan lantzeko tresna bat garatu dute: beharren lorategia. Ideia horrek hainbat dimentsio batzen ditu: gorputzaren beharrak, jolasteko beharrak, ospatzeko beharrak, gogoaren beharrak, norbera izateko beharra eta hartu-emanetan oreka bilatzeko beharra. Horietatik abiatuz, tratu onen kultura erotikoa landu behar dugu, ligatze jatorra sustatuz.

Hezitzaileek beren jarrerei buruz ere hausnartu behar dute, eredu direla kontuan hartuz. Lekua egin behar diegu gureak ez diren proposamen eta asmo ezberdinei.

Bestalde, zer egin behar dugu desioekin? Kudeatu, bideratu, forma eman, goraiatu. Horretarako trebatu behar gara.

Sedukzioa bestearen bizi-espazioa artez urratzea da. Eta horrek etengabeko negoziazioa eskatzen du. Negoziatio horretan ausardia eta errespetua behar ditugu, dosi handi eta parekoan. Tratu onak sustatzeko bereizkeriaren kontrako antidotoa behar dugu. Eta antidoto hori non topa dezakegu? Hausnarketa saioetan, hezkuntza prozesuetan eta esperimintatzeko aukera ematen diguten espazio babestuetan.

Orain arte emakume eta neskek egindako lana izugarria izan da. Mutilen lekua ez da argi ikusten, eta espazio hori gehiago ahalbidetu behar dugu. Neskei zama bat kenduko die horrek.

Zein da mutilen lana? Besteak objektu sentiarazi gabe begiratzen ikastea, afektibotasuna kudeatzen ikastea, ikusle hutsa baino, aliatu bihurtzea, eta tratu onei bidea egitea.

Mutilei presio asko egiten die sistemak, asko espero da haiengandik. Mutilekiko aurreiritzi kriminalak daude: erasotzailea, arduragabea, biolentoa. Aurreiritzi horiek baztertzeko ere pausoak eman behar ditugu. Lehiakortasuna eta indarkeria murriztu behar ditugu, eta ahul agertzeko eta hanka sartzeko eskubidea bereganatu.

har+eman - Osaguntsuak eta sexuen hezkuntza

Arremanitz Koop.
NEREA SANCHO ESNAOLA

80- HIESA PANDEMIA
Kondioen itzalean ANIZTASUNAK
Jardunon hezkuntza MURRITZA

2020- COVID AFETUEN KRISISA
Sexuon hezkuntza
identitate aniztasun landu

MUW
Lanaren mundu mitiko
alarman/ gaitzesko BALIABIDEAK
GARAPEN 2030 JASANGARRIA
HEZIBEARI CV
SEXU UGAL ESALBIDE
KOMUNITATEA
GUREGANATU

Ni
Sarea
Komunitatea
gopuzaren BEHARRAK
jarduteko gogoren BEHARRAK
segurtasun opatu
ni neurriak
hantu ematen orka

TRATU ONEN KULTURA erotikoa
LIGATZE JATORRA Sustatu
hezkuntza: Amugak hausnartu
mezuak maiztasun estereotipua
ONartu
desioa elikatzen dute ERATZITU behar ditugu

Sedukzioa besterun bizi espazian
ARTEZ transgreditu
itengabeko negozialetan
AUSARDIAZ errespetuaz
EZETZ EZETZ DA
BAIETZ BAIETZ DA

Hezkuntza prozesuak
hausnartez Saiok
Babestutako esperimentazioa praktikak kolektiboak
apostua

eredu positiboak IKASI indartu TXALOTU
boteratu eta maitasun erromantikoak desmuntatu
ibilbidean inplikatu & irabazi emakumeak ez objektuak
begiratzen ikasi emozioak kudeatzen ikasi
esangari feminista enartu
aliantzak euren artean

norabidea
ANIZTASUNA pertsonalizatua
minimalea zaintza
errespetua AUTONOMIA KONFIANTZATEA
PAKETA puzketasune adin guztietan
egunerokotasuna desioa KONFIANTZA
plazerrak zaintza aberastasun

personala kolektiboa
emozio egitura sozial
bizirik pertsonala
mezu giza-estratu ezberdinetan
gaitze guraso zahar egokitu udal talde
sexu aholku ... eta beste
... eta denboran zahar errepikatuta
Gizartean DENON ARTEAN
leku egin adib. 7 untean ALDAKETA
gopuzte trans-ei egindako begirada
NOLA?
erreferente ezberdinetan bizi egin
espazio banatuetan, euren guraso,
oskola utzi eta izan
heziketa egokitu

Taldeak eratzeko modu berriak asmatu
izen oro esaldi afinetara
profesionalak ez gora NEUTRALAK
AUKERA duqu ANIZTASUNARI
BEGIRATZEKO galdetara pertsonaletan

enrutz.illustraile@gmail.com

ERAIKI II. Komunitate-harremanak, elkarbizitza eta gatazkak.

Lucas Platero Méndez

AURKEZPENA

Ikertzailea Juan de la Cierva-incorporación programan, Psikologia Sozialeko Saila, Universitat Autònoma de Barcelona.

[AFIN](#) eta Fractalidades de la Investigación Crítica taldeetako kidea.

Azken argitalpenak:

- [Redistribution and Recognition in Spanish Transgender Laws](#)
- [Lost in Transition? Digital trans activism on Youtube](#)
- [Cuerpos Marcados. Vidas que cuentan y políticas públicas](#) (Bellaterra 2019)

HITZALDIA

Erreferentziak:

- Liburua: [Pedagogías Queer](#). CELEI (Hezkuntza Integratzaileko Latinoamerikako Ikasketa Zentroa)
- Liburuaren gida: [Bellaterra Trans](#) bilduma

HITZALDIAN PARTEKATUTAKOAK

Irakasle garen aldetik, gutxitan hitz egiten dugu gure gorputzaz, sexualitateaz edo ikasgelan irudikatzen dugun gizarte-klase horretaz. Gorputza eta burua bereiztearen ideiak gure egotea, gure lotura emozionalak eta gure praktika profesionala zeharkatzen ditu. Bestalde, zer beldur sortzen zaizkigu errealitate horietako bat (adopzioa, sexualitatea, generoa...) ikastetxeetan azalartzen denean?

Lucas Platerok pedagogia eraldatzaileekin ekintzara igarotzea proposatzen digu, aldaketa dagoeneko has dezakegula ohartaraziz, eta, horretarako, gaur bertan, hemendik ordu erdira, egin ditzakegun 9 gogoeta proposatzen dizkigu:

1. Pentsatu sexualitatea eta generoa abiapuntu onak izan daitezkeela gure eskolak eraldatzeko moduari buruz hitz egiten hastean. Bidea ireki dezakete beste gai askori buruz aritzeko: arraza, aurreiritziak, gaitasunaren eta ezgaitasunaren inguruko irakaskuntza-estiloak, jatorria, hitz egiten diren ama-hizkuntzak...
2. Planteatu eskolako praktika interseksionala izan daitekeela. Gure egoteko modua baldintzatzen duten desberdintasunek zeharkatzen gaituzte.

3. “Normaltasun” kontzeptua zalantzan jarri. “Normaltasuna” neurtzeko, izendatzeko, finkatzeko eta seinalatzeko modu asko daude: gainditzeko 5 bat atera beharra, altuera, noiz ikasi “behar” den hitz egiten, noiz batuketak egiten, eta abar. Ez dugu balioesten haurrek duten jakintza; ezagutza jakin bati bakarrik ematen diogu balioa.
4. Eraldatzen ausartu. Arriskatu eta praktikan jarri. Eztabaidetan, zuzenean inplikaturako pertsonak parte har dezatela.
5. Pentsatu umorea hezkuntzan txerta daitekeela. Ikastea ekintza arriskutsua da, zerbait ez dakizula agerian uztea eskatzen baitu; besteek epaituko zaituztenaren beldurrari aurre egitea da (azterketak). Jakin-minarekin ordezkatu behar da beldurra.
6. Sexu-hezkuntza integralera hurbildu. Beldurra ematen digu ikasgelak gure bizitzari buruzko galderak itzultzen dizkigunean. Ezagutza falta dago.
7. Kontzeptu disruptoreak, arraroak erabili. Zerbait iraina dela zalantzan jarri, hitz egin eta tabua ezabatu. Irainek oso muga argia ezartzen dute onartzen denaren eta baztertzeko denaren artean.
8. Eskolako testuingurua zeharkatzen duten botere-harremanak aztertu: irakasleok dugu azken hitza, eskola-kontseiluari balioa kentzen ari gara, hezkuntza ikasleak ez beste guztia da...
9. Hizkuntza nola erabiltzen dugun pentsatu. Hitzek izendatzen eta artikulatzen dute hezitzailea dena eta ez dena, ongi dagoena eta hortik kanpo gelditzen dena.

GALDERAK: Xabier Odriozola, Nerea Sancho eta Lucas Platero.

◆ *Nola landu mutilen inplikazioa?*

N. Sancho: Erreferente ezberdinak sustatzeko, tailerra neska batek eta mutil batek eman beharko lukete.

Espazio propioak behar dira. Iritzi klasikoak botatzeko, giro propioa sortzeko, konfiantza sortzeko eta ahultasune, hanka-sartzei eta emozioei bidea zabaltzeko. Testuinguru apropos bat sortzea garrantzitsua da.

Gizonei muga asko jarri dizkiegu. Horregatik, beraiei ere espazio seguru bat eraiki behar diegu.

◆ *Zehaztu dezakezu zer esan nahi zenuen bigarren proposamen praktikoa interseksionalarekin?*

L. Platero: Behar fisiko bereziak dituzten haurrak daudenean, haiei erreparatu diegunean, badirudi balio gabetu egiten ditugula haien beste alderdiak: sexualitatea, generoa edo munduan beste era batera egoteko nahiak. Pertsona autista batek genero-adierazpen ez-autista izan dezake. Edo gaitasun handiko pertsona trans bati buruz, adibidez, esan dezakete: “gauza asko dira batera”. Interseksionalitatea da ulertzea gure bizitza hainbat ardatzek zeharkatzen dutela. “Interseksionalitate” hitzak biltzen duen parametro teorikotik haratago joan behar dugu.

◆ *Nola lotzen dituzue kontu pertsonalak estrukturalak diren gaiekin lan egiteko?*

X. Odriozola: Gizartean aldaketa eragin nahi badugu, pertsonen baitan aldaketak eragin behar ditugu. Jarraipen bat eman behar diegu gure praktika zehatzei.

N. Sancho: Modu integralean lan eginez. Gizarteko arlo ezberdinetara mezu berdina helarazi: ikasleei, irakasleei senideei, herritarrei, zaharrei, sexu aholkularitzan, etab. Ez da lan pertsonal isolatu bat. Gainera, urtez urte errepikatzen den lanketa izan behar du, tratatu onei bidea zabalduz.

L. Platero: Emozioen pedagogia landuz. Dena ondo egiten duen andereño errespetagarri, garbi, aseptikoaren ideia hautsi egin behar da, humanizatu. Alderdi emozionala erakutsi, edo zalantzak eta gabeziak. Arreta edukietan bakarrik jartzen duen pertsonaia neutral hori hautsi. Freirek dioenez, harremanekin ikasten dugu. Denok izan dugu irakasleren bat maite genuena, ematen zuen gaia ematen zuela ere. Zergatik ez esan lotura emozional batekin hobeto ikasi eta irakasten dugula?

◆ 2-3 urteko haurren hezkuntzan gorputza lantzen hasteko proposamen edo gogoetarik?

L. Platero: Bada nahikoa material, adibidez, “Itsaslamina-isatsa”, “Mi princesito” eta “Cómo se hace una criatura” ipuinak. Nire txikiari asko gustatzen zaio “Familias felices” izeneko ipuina, familien aniztasunari buruzkoa. Errealitate ugaritara egokitutako materiala dago. Testuinguru bakoitzerako egokia dena bilatu behar da. Ipuin, audio-liburu eta jolasteko aukera ematen duten gauzen oso aldekoa naiz, elkarrizketa bat sortzeko bidea irekitzen baitute. Material horiek ez dute azken puntua izan behar.

Partekatutako materialen zerrenda:

- *Munstro arrosa.* Olga de Dios
- *Gora koloretako azazkalak!* Alicia Acosta eta Luis Amavisca

- *Tango iritsita, hiru dira.* Justin Richardson
- *Buscando el final del arcoíris.* Fiona Joy Green
- *Tránsito.* Bermúdez eta Cantero
- *Guía de supervivencia para adolescentes trans.* Fox eta Owl Fisher
- *¿Es de chica o de chico?* S. Bear Bergman
- *Petruska.* Eva Garrido
- *Esta es mi historia.* Maria Pereiro
- *Las aventuras de Tulipán.* S. Bear Bergman
- *Jazz naiz.* Jessica Herthel
- *Amar con los pelos revueltos.* Syrus Marcus Ware
- *Mi princesito.* Cheryl Kilodavis
- *Llárame Paula,* Concepción Rodríguez

◆ Talde anitzetan lan egin, edo banatuta, espazio seguru bat edukitzeko behar ezberdinetarako?

N. Sancho: Egoera ideal batean hibridazioak ematen dizkigu erantzunak. Saio batzuetan banatuta egotea ondo dago, beste batzuetan ez; afinitateak bilatu behar ditugu. Talde dinamikak erabili afinitate-taldeak sortzeko.

X. Odrizola: Ume txikiak sistema patriarkalarekin edo berdintasunarekin konektatu daitezke. Hasieratik gaia landu nahi baldin bada, etekin gehiago aterako dugu genero banaketa bat eginez. Mutilek beraien boterea lantzeko eta neskak ahalduntzeko, gero bateratzerakoan botere oreka bat lortzeko.



Lucas Platero



DOCENTE

- ¿Qué papel tiene nuestro cuerpo?
- ¿Qué concepción tenemos de la infancia?
- ¿A quién dejamos fuera?
- ¿Cómo se genera la masculinidad hegemónica?
- ¿Qué es violencia?
- ¿A qué tememos?;
- ¿Reproducimos roles?
- ¿Qué ocurre con las infancias/juventudes trans?;

Pedagogías transformadoras

1. Sexualidad y género como punto de partida.



2. Práctica escolar interseccional.



3. Cuestionar la [normalidad].



4. Atrevernos a transformar.

6. Educación sexual integral.

5. Humor. Confrontar y aprender (sustituir el miedo por la sorpresa)



9. Utilización del lenguaje: el habla.



8. Relaciones de poder: -familias - Democratizar la escuela.

7. Conceptos disruptores: reapropiarse del "insulto".



@Bikitxub

3. TAILERRAK

| Deseraiki



Genero-arauak eta gorputzak: zaugarriak eta indartsuak gara.

Edurne Epelde Pagola | Emagin

AURKEZPENA

Emagin pentsamendu kritiko feminista sustatzen duen elkartea da. Jendarte-eraldaketaren alde lan egiten dugu, eta horretarako, prozedura feministak erabiltzen ditugu gure oinarritzko lan esparruetan: formakuntza, ikerketa, dokumentazioa eta ekoizpena.

Edur Epelde Pagola dut izena eta psikologoa, hezitzailea eta feminista naiz. 2003an Emagin sortu zenetik, bertako sustatzaile eta kidea naiz, baita mugimendu feministakoa ere, batez ere, Bilgune Feministakoa. Hezkidetzaren izan da nire langai eta formazio gai nagusietako bat. Gaur egun, guraso izan berritan, genero-arauen behatzaile aktiboa naiz, baita generoaren eraikuntzaren nondik norakoen ikerlaria ere.

TAILERRA

Laburpena

Hezitzaileok genero-aurreiritzirik gabeko hezkuntza praktiketan aletxoak jartzeko, behar-beharrezkoa da gure eguneroko jarduerak, egiteko moduak, erabiltzen dugun hizkuntza, mugimenduak,

gorpuzkerak eta adierazpenak aztertzea. Tailer honetan, aukera izango duzu zure buruarengan arreta jarri eta zure jardunean eragiten duten genero-sinesmenak aztertzeko. Gure alderdi zaugarria eta indartsua identifikatuko ditugu eta kontzientzia horretatik gure hezitzaile lana sustatu. Hezitzaileen lana garrantzitsua da, eta hezkidetzaren praktiketan sakontzen jarraitzeko aukera paregabea izango duzu.

Hitz gakoak: deseraiki, konfiantza, genero-arauak, sinesmen mugatzaileak, hezkidetzaren, osasuna.

Helburuak

- Hezitzaileok ditugun genero-arau eta sinesmenak identifikatzea, arreta gorputzean jarriz.
- Haur eta nerabeekin lan egiterakoan oso barneratuak ditugun genero-aurreiritziak antzematen ikastea.
- Hezitzaileon lanaren garrantziaz jabetzea eta gure baitako konfiantza indartzea, gure buruari tratu onak eskainiz.
- Zaugarri izatearen eta agertzearen garrantzia ikusaraztea; indartsu izatea zeri deitzen diogun aztertzea.
- Egunerokoan hezitzaileok ditugun praktika hezkidetzailleak elkarbanatzea eta elkarrekin ikastea.

HEZKIDETZA: INOIZ BAINO BEHARREZKOAGOA

Lerro hauetan, azaroak 3 eta 4an, Calcuta Ondoan Elkarreak beste elkarte batzuekin batera antolatu duen Begiradak, Esperientziak eta Saretzeak izeneko Hezkidetza eta Pedagogia Feministen Kongresuan egin den hezkidetza tailer baten nondik norakoak topatuko dituzu. Zehazki, Deseraiki atalean kokatu den **“Genero-arauak eta gorputzak: zaurgarriak eta indartsuak gara”** lan saioaren eduki nagusiak bildu dira dokumentu honetan.

2020. urtea adierazpen eta gertaera sozial eta politiko esanguratsuekin hasi genuen. Jasaten ari garen osasun-krisia integrala eta albo kalte ugariak da. Testuinguru honetan, mundua “gaixo” eta indarkeriaz gainezka dagoela baieztatzea ez da gehiegi esatea. Zaharrak diren eta oraindik indartsu dirauten zapalkuntza eta menderakuntza sistema anitzak ondorio kaltegarriak ari dira eragiten egunerokoan. Horrela, ezohiko egoera honek kapitalismoaren edota patriarkatuaren eraginak areagotu ditu. Ondorio horiek jendarte osoarengan eragin badute ere, inpaktu zuzena jasan dute Euskal Herriko hezkuntza-komunitateek: orokorrean, eskolek, ludotekek, gaztelekuek, aisialdi egitasmoek, hezkuntza ez formaleko guneek; eta zehazki, hezitzaileek (irakasleek, begirale, kale/gizarte hezitzaileek eta gurasoek), gazteek, haurrek, baita aitona-amonek ere. Beraz, guztiok aurkitzen gara ziurgabea eta aurreikusi ezina den egoera batean, eta, aldi berean, eskubideak urratzen zaizkigu eta aske zirkulatzeko eskubidea murriztuta dago.

Egoera honen aurrean, gure txikienean eta gazteen sozializazioa eta afektibitatea alarma egoeran sartu dira. Hala ere, beharrezkoa zaigu, orain inoiz baino gehiago, hezkuntza egitasmoetan haien beharrei eta harremanetan eragiten duten genero-arauei eta sexismoari arreta jartzea. Hezkidetza lantzea inoiz baino beharrezkoagoa bihurtu da, premiazkoa.

Haurren eta nerabeen sozializazio-prozesuan aldagai ugari eragiten dute, eta horietako bat da sexu-genero identitatea. Jaio aurretik, genero batean edo bestean “maskulinoan” edo “femeninoan” sozializatzen hasten dira: izenarekin, janzkerarekin, hitz egiteko moduarekin, eta begiradarekin berarekin ere bai (Delgado, 2018). Etapa horretan hasten dira haurrak barneratzen neska ala mutil diren. Zoritxarrez, neska edo mutil izateko moduak eta ereduak geroz eta zurrungoak dira gurean, eta ondorioz, haurren gehiengoak, eredu batean zein bestean kabitu ezinda aritzen da. Garapenaren fase horretan, hain berezkoak diren inizatiba, sortzailatasuna eta jolasa alde batera utzi eta bi genero armairuen arabera moldatzen ikasten dute haur txikienean. Horrela sortzen dira negarrik egiten ez duten mutilak edota inoiz haserretu ezin diren neskek; ausartak, indartsuak eta futbolzaleak (edota gerrazaleak) diren zakildunak eta menekoak, goxoak eta zaintzaileak diren aludunak.

Sexu-generoen identitate hori 3 urtetatik 7 urte arte areagotzen joaten da, haurrak garai sexualera igarotzen direnean eta beren genitalekin harremanak izaten hastean. Nerabe direnerako gauzak inoiz baino argiago dituzte: batetik, mutilek ezin dute gonarik jantzi, hori egiten dutenak “marikoiak” dira; bestetik, neskek ezin dute sexu grina gehiegirik adierazi, bestela “puta” gisa ikusiko dituzte.

Indarkeria matxistaren atzean eta oinarrian, generoaren eraikuntza bitarra dugu, dudarik gabe. Hezitzaileok ere makineria guzti honen eraginpean gaude, gu ere sexismoaren produktuak gara. Horregatik, berebiziko garrantzia du gure gorputz nahiz pentsamenduetan genero-arauek utzitako arrastoez jabetzeak. Ezin dugu beste aldera begiratu: haurrek 24 ordu dituzte, guri begira, imitazioz ikasteko. Alferrikakoa da zer esaten diegun; zer egiten dugun eta zer sentitzen dugun behatzeko gai dira.

Hezitzaileok beharra dugu elkartu, hitz egin, desadostasunak eztabaidatu, iritziak trukatu eta gure jendartean indarkeria iraunarazten duten aldagaiak ezbaian jartzeko. Gure gorputz eta kontzientzietatik hasita, barneratuta ditugun zapalkuntzak identifikatu eta askotariko jarrerak saihesteko. Barneratu ditugun balioak maskulino eta femenino izeneko armairu berezitueta mantentzen dira oraindik. Badirudi neskek ezin dituztela “maskulino” izendatzen diren balioak bereganatu eta alderantziz, mutilek ezin dute balio “femenino” deiturikoez gozatu. Izendapen horiek ere ezbaian jartzeko abagune ederra da hau. Bide batez, ohartarazi nahi nuke pertsona orok dugula balio guztietarako irisgarritasuna. Gainera, pertsona osoak izateko batetik eta bestetik elikatu beharra dugu.

HAUSNARKETARAKO GALDERA ETA EZTABAIDAGAIK

Hona hemen, hurrenez hurren, feminismoak historian zehar egin dizkigun ekarpen ideologikoak nahiz aldarrikapen praktikoak. Horien haria aprobeztatuz, zure baitan edo hezkuntza proiektuan hausnarketa sustatu dezaken galdetegi bat duzu jarraian.

Herritar osoak gara: hezkuntzarako, parte hartze soziopolitikorako nahiz kulturarako eskubidea dugu!

- ◆ **Partaideen (haur, nerabe, guraso, irakasle) beharrak, interesak eta nahiak kontuan hartzen ditut? Horiei tokia egiteko nahikoa espazio eskaintzen ote ditut? Zer bitarteko erabiltzen ditut haien interesetara iristeko?**
- ◆ **Nire behar, nahi eta interesak bortizkeriarik gabe komunikatzen asmatzen dut?**
- ◆ **Partaideen protagonismoak nola bideratzen ditut? Zer metodologia erabiltzen dut guztien parte hartzea ziurtatzeko? Talde handian hitz egiteko zailtasunak dituztenei tokia egiteko zer neurri hartzen ditut?**
- ◆ **Zer ulertzen dut parte hartzearekin? Hitz egiten dutenak bakarrik hartzen ditut kontuan ala entzuten dutenak ere bai? Entzutea baloratzen dut? Nola? Noiz entzuten diet partaideei? Entzuteko eta hitz egiten ikasteko trebatzen ditut partaideak?**
- ◆ **Entzuten ote diet nire lankideei, beste irakasleei eta gurasoei? Edota hezitzaile naizen heinean nik gehiago hitz egin beharra eta beti ahozko ekarpenen bat egin beharra sentitzen dut? Aktiboki entzuten dudanean, ezer ez naizela egiten ari, hau da, ez naizela parte hartzen ari sentitzen al dut?**

*Ez gara emakume jaiotzen, egin egiten gara!
(Simone de Beauvoir, 1949)*

◆ **Nola ulertzen dut nire baitan genero identitatearen afera? Hezkuntza proiektuko partaideei aukera ematen diet genero kategoriekin jolasteko? Multzo batekoak ala besteak izatera bultzatzen ditut? Neska izateko askotariko moduak, erreferentziak, adibideak eta abar eskaintzen dizkiet? Mutil izateko askotariko moduak azalertzeko ahalegina egiten dut, irudi, abesti, pelikula nahiz baliabide ezberdinekin?**

◆ **Transexualitateari buruz hitz egin, pentsatu, irakurtzeko aukera izan duzu?**

◆ **Errespetatzen dut partaideen izendapen propioari buruzko nahia, ofizialarekin bat ez datorrenean?**

◆ **Genero identitatea nola bizi duzu zure baitan? Hausnartu duzu lankideekin emakume edo gizon izendapenen atzean ditugun inplikazioak eta aukerak?**

Pertsonala politikoa da.

◆ **Zer garrantzia du gure hezkuntza-proiektuan gorputzak? Eta zer garrantzia du gogamenak edo arrazoiak?**

◆ **Emozioek badute lekurik, adierazpenik? Nola zaintzen ditut emozioak? Nireak, hezitzaile gisa, eta hezkuntza proiektuko partaideenak?**

◆ **Harremanak eta horien balioa kontuan hartzen dut? Hezkuntza komunitateko partaideen arteko botere harremanak berrikusteko aukerarik badut?**

◆ **Oraindik orain eremu pribatuarekin lotzen diren garbiketa eta zaintza lanak balioesten dituzu? Nola egiten dira eta nork egiten ditu garbiketa lanak zure hezkuntza proiektuan?**

◆ **Sexualitateaz nahiz behar afektiboari buruz hitz egiteko aukera badago zure saioetan?**

Zaintza eta bizitzak erdigunean. Zaintzen pedagogia.

◆ **Norbere burua, ondokoa, taldea eta planeta zaintzearen garrantziaz jabetzen zara? Zer tresna pedagogiko erabiltzen dituzu hori errealitate bihurtzeko?**

◆ **Zure burua eta besteak ongi tratatzeko zer estrategia dituzu?**

◆ **Feminismoek, LGTBQI+ mugimenduek, arrazakeriaren aurkako mugimenduek egiten dituzten ekarpenak kontuan hartzen dituzu?**

BIBLIOGRAFIA

- Arremanitz Kooperatiba. **Buletina**.
- Caro, M.A & Fernández-Llebreg, F. (2010). *Buenos Tratos: prevención de la violencia sexista*. Madril: Talasa argitaletxea.
- Delgado, M. (2018). *Transexualitateak*. Euskal Herria, Bilgune Feminista
- Fresnedo, I eta Arremanitz (2018) Hezkidetzan hezitzekeo gida. (H) abian. **Hemen** eskuratu.
- Hiruki Larroxa (2020). Pozoi Larroxa#0. Abril 2020, 0. **Hemen** eskuratu.
- Hiruki Larroxa (2020) Pozoi Larroxa#1. Junio 2020, 1. **Hemen** eskuratu.
- Missé, M. (2013). *Transexualidades: otras miradas posibles*. Bartzelona-Madril: Egales argitaletxea.
- Missé, M. (2018). *A la conquista del cuerpo equivocado*. Bartzelona-Madril: Egales argitaletxea.
- Moreno Cabrera, O. & Puche Cabezas, L. (2013). *Transexualidad, adolescencias y educación: miradas multidisciplinares*. Madril: Egales.
- Platero, L. (2014). *Trans*exualidades: acompañamiento, factores de salud y recursos educativos*. Bartzelona: Bellaterra.
- Reizabal, L. (2015): *Genero berdintasunean hezteko gida familia, irakasle eta bestelako hezitzaileentzat*. Bilbo: UEU y EHU/UPV.

TAILERREAN PARTEKATUTAKOA

Edurnek hurrengo ordu eta erdian zehar garatuko dituen gaien laburpen txiki batekin hasi du tailerra.

Ondoren, talde txikitan, geure buruak aurkezteko ariketa bat proposatu du. 3 galdera erantzun ditugu. Lehen galdera honakoa izan da: Zer trajerekin jantzita zatozte? (Nola aurkeztu nahi dugu gure burua? Lanbidea, egunerokotasunean betetzen dugun rola, tailerrean betetzen dugun rola, eta abar zabal bat). Bigarrenik, bakoitzaren generoarekin lotzen dugun ezaugarri bat aurkeztu dugu eta, azkenik, gure ezaugarri positibo bat aukeratu eta esan dugu.

Talde nagusira itzuli eta **“hezkidetzaz zer da?”** galderari ekin diogu. Feminismoak hezkidetzari egindako lau ekarpen nagusiak aipatu ditu, feminismoaren errepaso historikoa ardatz hartuta: Hezkuntzarako eskubide unibertsala, “emakumea egin” egiten denaren ideia, pertsonala politikoa dela, eta azkenik, zaintzak eta bizitzak erdigunean jartzeari buruzko ekarpen ideologikoa.

Ondoren, beste galdera batekin jarraitu du: **“Zerk iraunarazten du sexismoa eta bazterketa? Hezitzaileok zer egin dezakegu?”** Gizabanakoen pentsamenduek duten garrantzia azpimarratu du, barne mugak gainditzeko beharra aipatuz. **“Zer pentsamendu murriztaile ditut?”** galdetu dio taldeari, eta horri erantzuteko banakako ariketa bat proposatu digu: bakoitzak ditugun bost ideia mugatzaile pentsatu, marrazki baten laguntzaz gorputzeko atalen batean kokatu, eta ideia horiek gainditzeko lagunduko digun esaldi bat pentsatu dugu. Ariketa egin eta talde handian partekatu dugu.

DE SE RAI KI
aurreintzi estereotipoak IRUDITERIA deseraiki

GENERO ARAUAK eta GORPUTZAK

zaurgarriak eta indartsuak gara

EMAGIN

Edur Epelde Pagola

Indartsuak GARA

EMAGIN Bilgune hezitzaile guraso

nere haurramen GENDERO identitatea behatzen



2 HELBURU:
mik, erailkiko genero identitateak ze mpaaktu izari du nere bizitzan?
elkartuakatea: material, baliabide...

izan dadila TAILER hau denontzat OPARI bat

jarri arreta BEHAR duzun horretan



zerk IRAUNARAZTEN du Sexismoa?

GURE PENTSAMENDU sexista mugatzaileek



eta KEINUA

ARIKETA

5 pentsamendu sexista mugatzaile

gorputzi: nun eragiten didate?

zerk egiten nau INDARTSU berritidu gorputz atala



abral duti! eta ezin kodut ee da EZER gertatzen

deskantosa, macezi del

genero berrakelari jamaizume bitain naiz

ERAKARGARRIA NAIZ

bidean egiten ari naiz

EZER ez da hil da BIZIKOA

elkartanleak eta irakurleak babekin AURRERA

PENTSAMENDU mugatzaile batentent PENTSAMENDU INDARGARRI bat dut

zirk berrakelari AHAL duak, eta GUTXAGOREKIN ene

denek daukate ARRAZBIAREN zati bat BEHINIZAT

urgentzia alde batera utzi: AHAL DUT eta!

nere eskizitasunean HAUNDIA ue BANAIZ

HEZ KIDE TZA

100 ALDARRIKAPENA: feminismoa emakumeak beritar gisa hezkuntza eskubidea du (berrin bai, munduan ez!!) ezagutza jakintza

2. EKARPENA: emakume ez gara jaiotzen, ezin egiten gara

3. EKARPENA: pertsona POLITIKOA da

4. EKARPENA: BIZITZAK erdiguneza

hezitzaileak DANTZARIA da tarteka HEZKIDETZAN tarteka ZALANTZAN tarteka SEXISTA

enritz.illustratzaile@gmail.com

Deseraiki: Estereotipo eta aurreiritziak, iruditeria kolektiboak.

Marian Moreno Llameza

AURKEZPENA

Gaztelera eta Literaturako irakaslea da Bigarren Hezkuntzan duela 30 urtetik. Gaur egun, Asturiasko Emakumearen Institutuko hezkidetzaholkularia da, eta COEDUCASTUR Asturias osorako hezkidetzaprograma idazteko helburua du.

Nafarroako SKOLAEko erredakzio-taldeko kidea da. Emakumeen eta nesken hezkuntzaren UNESCO saria jaso zuen 2019an, Skolae-ren erredaktore gisa.

Berdintasunerako hezkuntzari buruzko argitalpen hauen egilea ere bada:

- Coeducamos: formación del profesorado.
- Queremos coeducar.
- Liderazgo e igualdad.
- Breve diccionario coeducativo.
- Escuelas libres de violencias machistas.

TAILERRA

Tailerraren helburu orokorrak eta zehatzak:

- Ikasi ditugun eta oraindik deseraiki ez ditugun genero-estereotipoez jabetzea.
- Gizarte honetan transmititzen zaizkigun genero-estereotipoak eta aurreiritziak aztertzea.
- Genero-estereotiporik gabeko sistema batean hezteko estrategiak proposatzea.

Tailerraren bidez landuko diren gaitasunak:

- Norberaren errealitatea genero-ikuspegitik aztertze gaitasuna.
- Ingurune hurbila genero-ikuspegitik aztertze gaitasuna.
- Genero-estereotiporik gabeko estrategiak proposatzean sormena erabiltze gaitasuna.

TAILERREAN PARTEKATUTAKOA

Marian Morenok hitz eta esanahiak bateratuz eta ideia argi bat helaraziz hasi du tailerra: deseraiki esatea erraza da, egitea, ordea, norberaren barrutik zintzotasun osoz pentsatzea eskatzen duen lan pertsonala da.

Genero-estereotipoak:

EMAKUMEAK. Hauskortasuna, edertasuna, amatasuna, hurbiltasuna, elkartasuna, segurtasun falta. Samurtasuna: Emakumearen estereotipoa “animatzailea” da; gorputza erakusten duen arroparekin ateratzen da, eta ezkutatu egiten dira benetan garrantzitsua dena gizonek egiten dutenean...

GIZONEZKOAK: Sendotasuna, ausardia, profesionala, lotura falta, oldarkortasuna, segurtasuna. Gogortasuna: Gizonaren estereotipoa “karateka” da, beti tatamiaren erdian, beti erne.

Horrek guztiak iruditeria kolektiboa osatzen du. Existitzen ez den zerbait denok buruan berdin-berdin imajinatzea eragiten du.

Dinamika: Eta nire haurtzaroko estereotipoak?

Banakako hausnarketa egin da, galdera horri erantzunez, eta ondoren bateratzea. Parte-hartzaile guztiek egiaztatu dute genero-estereotipoak desberdinak direla “neska” edo “mutil” izatearen arabera, baina sinesmen horiek transmititzen digute gaizki dagoela norbera den bezalakoa izatea, beste zerbait izan behar dugula eta gaizki sentitu behar dugula ez lortzeagatik. Emakumezkoen kasuan, beti aipatzen da fisikoa, zorrotz hezten dira mendeko izateko... Gizonezkoei, berriz, oldarkortasuna sustatu eta negarra debekatzen zaie.

ONDORIOAK

- Estereotipoa betearaztea haurtzaroan hasten den indarkeria zuzena da.
- Estereotipoa betetzea barne-indarkeria da. Pertsona batek estereotipoa hausten duenean, kanpo-indarkeriaren biktima bihurtzen da.
- Oso garrantzitsua da dauzkagun estereotipoez kontzienteki jabetzea, inkontzienteki beste pertsoneri transmititzen dizkiegulako etengabe. **Adibidez:**
 - Neska bati irakasten badiogu “ona” dela musuak ematen dituenean, laztanak onartzen dituenean, haurtzaroan sexu-abusuen aurkako estrategiarik ez izatea eragin diezaiokegu; izan ere, ikasten baitu mugak jartzeak “txarra” egiten duela, ez maitatua.
 - Gizon bat homosexuala denean, estereotipo femeninoa betetzearekin presio egiten zaio (sentibera izatea, etxea ondo jarrita izatea...), eta kontrakoa, berriz, emakume bat lesbiana denean (zakarra izatea, alkohola edatea...).

ERRONKA

Marianek, tailerra amaitzeko, norberak bere kabuz jarraitzea proposatu du, eta gaur egun ditugun estereotipoei buruz hausnartzeko eskatu digu.



Mirarse para dentro para **no** transmitirlos



salirse de la norma desorienta a la sociedad



Dekonstruir: estereotipos y prejuicios, imaginarios colectivos

imaginario colectivo

Los niños ~~no~~ lloran también

Los cánones de belleza como lastre



estereotipos


“La plancha”



fragilidad
belleza
maternal
cercanía
inseguridad
ternura
solidaridad

fuertes
valentía
profesional
Desapego
Agresivo
seguro de sí
dureza

Cumplir el estereotipo es VIOLENCIA



Los medios viven del negocio de los estereotipos

“esto es un taller de por vida”

@Bikitxub

Etorkinei buruzko estereotipo eta aurreiritzien eragina hezkuntzan.

Jenanne-Rondale Dacouagna Minkete | Biltzen

AURKEZPENA

Jeanne esku hartze sozialeko goi-teknikaria eta berdintasun arduraduna da BILTZEN Integraziorako eta kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal zerbitzuan, eta 2005etik ari da lanean bertan. Hainbat gairi buruzko ikastaroak eman ditu: kultura-aniztasunaren kudeaketa, atzerriko ikasleen integrazioa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, etab.

Filologia Hispanikoan lizentziatua da, Berdintasuna eta generoa arlo publikoan eta pribatuan unibertsitate-masterra du, eta doktorea da Emakumeen, Feminismoaren eta Generoaren ikasketa eta ikerketetan.

TAILLERRA

Helburu orokorra:

Atzerriko ikasleek hezkuntza sisteman aukera-berdintasuna eta eskola-arrakasta bermatzeko orientabideak ezartzea.

Helburu zehatzak

- Migrazioak kritikoki aztertzea
- Migratutako pertsonen buruzko estereotipoak eta aurreiritziak identifikatzea
- Estereotipo eta aurreiritzi horiek hezkuntzan duten eragina aintzat hartzea
- Eraldaketarako tresnak proposatzea

Tailerraren bidez landuko diren gaitasunak:

- Aktiboki entzutea
- Komunikazio eraginkorra
- Gaitasun kritikoa
- Sormena
- Arazoak konpontzea
- Talde-lana

TAILERREAN PARTEKATUTAKOA

Hiru dinamikaren bidez, Jeannek hainbat tresna erakutsi dizkigu arrazismoa identifikatzeko, horri buruz hausnartzeko eta haren aurka lan egiteko.

1. dinamika: Giza mugikortasunaren arrazoiei buruzko ideia-jasa.

Jeannek azpimarratzen du komunikabideek hegoaldetik datorren migrazioa erakusten dutela beti, eta, batez ere, pertsona beltzak, EAEra migratzen duten pertsonen gutxiengoa diren arren. Bestalde, egiaz dauden baino immigrante gehiago daudela uste ohi dute herritarrek. EAEn dauden atzerritarren portzentajea %10 da, eta herritarrek uste dute %17 dela.

2. dinamika. Migratutako pertsonen buruzko estereotipoak eta horiek hezkuntzan dituzten ondorioak.


Estereotipo horiek direla eta, ikasle migratuei ez zaie jarraipen akademiko berdina egiten. Desberdin tratatzen dira, ikasleen kalterako, eta haien bizitza akademikoa aurrez juzgatzen da. Kasu horietan pigmalion efektua gertatzen da.

3. dinamika: Hezkuntza-praktika aldatuz.

Irakasle garen aldetik, beharrezkoa da gure praktikak berrikustea, gure neutraltasun ezaz jabetuta. Nola egin hori? Prestakuntzen bidez, hurbileko kolektiboekin lan eginez, familiekin dugun komunikazioari garrantzia emanez eta arrazismoaren gaia sartuz.

Premiazkoa da, halaber, migratutako pertsonen beharrak eta interesak ezagutzea eta protagonismoa ematea, haiek guri zerbait ikusarazi edo irakasteko aukera ematen duten espazioak irekiz.

Azkenik, esku hartzeko hiru eremu azpimarratu ditu: ikasleak eta familia, hezkuntza-sistema, ikastetxea.



Jeanne-Rolande Dacouagna
Biltzen
Dinamizatzailea

ASESORAMIENTO JURIDICO
CONVIVENCIA INTERCULTURAL

ABORDAJE MULTIFACTORIAL

DINÁMICA I
Causas o motivos de las migraciones

LLUVIA DE IDEAS

Motivos políticos
Persecución
Amor
Descubrir el mundo
Estudios
Razones económicas
Motivos climáticos

MIGRACIÓN

DINÁMICA II
Esteriotipos sobre inmigrantes y sus consecuencias en la educación

EZ DA ERREZA!
VIENEN POR LAS AYUDAS
ZERRENDA BAT EGIN

HABILIDAD INVATA EN DEPORTES Y DANZA
MALA ACTITUD RESPECTO AL EUSKERA
MATXISTAGOAK DIRALA
IKASTEKE SEGREGATUTA
HIGIENE
AMERIKAKO HERRIALDE GUZTIAK HOMOGENEITATU
IJI TOAK LAPURRAK DIRALA
LAS PERSONAS LATINAS PRONUNCIAN MAL
A LAS CHICAS MUSULMANAS CON 18 LAS VAN A CASAR...
INVASIÓN La realidad es otra
CONSECUENCIAS
AMENAZA CRIMINALIZAMOS
Lo ACADÉMICO QUEDA RELEGADO
DISCRIMINACIÓN EN EL TRATO
VÍCTIMA racionalismo
ponemos el foco en la carencia

Grupos pequeños

Lore Ikertze
Tailerreko Antolatzaileak
Nuria Fernandez Ikertze

DINÁMICA III
Herramientas para el cambio: transformando la práctica

Revisar a los docentes
Preparar a los docentes
El conocimiento venga del alumnado
Crear redes con organizaciones
Revisar el curriculum educativo
Comunicación con las familias
Preguntar y no presuponer

¿qué hacer con la SEGREGACIÓN ESCOLAR y con el EUSKERA?

¿HABLAR DE RACISMO PARA LAS PERSONAS RACIALIZADAS ES POSITIVO O LES RESULTA VIOLENTO?
HAY QUE HABLAR DE RACISMO

4. BEGIRADAK PARTEKATUZ | Esperientzien azoka.



**TOKIKO PRAKTIKAK
EZAGUTZEN IKASLE, IRAKASLE
ETA ELKARTEEN ESKUTIK**

Begirada kontzienteak.

Ikertze, Calcuta Ondoan eta Zubiri-Manteo BHI.

ESPERIENTZIA

Aurkezpenean Zubiri-Manteo BHI-ko irakasle ohia den Idoia Bujandak eta Ikertzeko Leire de Miguelek parte hartu dute.

Begirada Kontzienteak Calcuta Ondoan GGKE-ak eta Ikertzek elkarlanean sortutako hezkuntza programa da. Lehenengo proposamena 2013-2014 ikasturtean egin zuten eta ordutik etengabeko ikasketa eta hobekuntza prozesu batean murgilduta daude. Egitasmoaren **helburua**, esaldi batean, honela laburbilduko lukete: **Kontsumoaren eta indarkeria matxisten arteko loturak aztertzea, aliantza horren ondorioen eta egin dezakegunaren hausnarketa burutzeko**. 3 lan ildo nagusi dauzka:

1. DBHko 4. mailatik aurrerako gazteekin **ikasgelako tailerrak**. Ondorengo ikastetxeetan lan egin dute: Zarauzko La Salle, Donostiako Luberri BHI, Donostiako Zubiri Manteo BHI (Merkataritzako erdi eta goi mailako zikloetako ikasleekin), Lazkaoko San Benito Ikastola, Ordiziako Jakintza Ikastola, Andoaingo Aita Larramendi Ikastola eta Orereta Ikastola.

Tailerrek 19 orduko iraupena daukate (horiek ikasleengan daukaten eragina neurtzeko, aurretik eta ondoren galdetegiak egiten dira); lehenengo 8 orduetan, elkarrizketa filosofikoa eta zapalduen antzerkiko metodologiak erabiliz, edukiei buruzko hausnarketa eta praktika egiten da. Ondorengo 11 orduak sorkuntzarako erabiltzen dira; hizkuntza artistiko desberdinen bitartez aurretik landutakoa adieraztera igarotzen dira. Mota desberdinetako tailerrak egin dira, ikastetxeko horma batean

murala margotu, erakusleihu bat muntatu, performanceak eta film laburrak (adibidez: Zubiri Manteoko ikasleekin egindako hau).

2. **Formakuntza:** Berritzeguneetan (Donostia, Lasarte eta Ordizia) eta Euskal Herriko Unibertsitatean (Magisteritzako ikasle eta irakasleak).
3. **Ikastetxeetako hezkidetzaren prozesuak:** San Benito Ikastolan, Aita Larramendi Ikastolan eta Zubiri Manteo BHIin (Merkataritzako Mintegia). Nola? Ondorengo pausoak jarraituz:
 - a. Hezkidetzaren Batzordeak sortu.
 - b. Hezkuntza-komunitatearekin ikastetxeko diagnostikoa egin: Horretarako, "EAE-ko hezkuntza-sistamarako II. hezkidetzaren plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023" dokumentuan oinarritutako galdetegiak diseinatu ziren. Eskuragarri eta erabilgarri daude guztiontzat: <https://ikertze.org/home/eu/hezkidetzaren/>
 - c. Diagnostikoa hezkidetzaren batzordearekin aztertu eta ekintza plana diseinatu.
 - d. Planak aurrera eraman.

Idoia Bujandak, erretiratu berria den arren, 40 urtetik gora egin ditu hezkuntza formalean; beraz, asko dauka esateko arlo horretan. Azken urteak Zubiri Manteo BHI-ko formazio zikloetan eman ditu eta, besteak beste, bere laguntzari esker hasi zuen Begirada Kontzienteak egitasmoak ibilbidea ikastetxe horretan.

Idoia, nola jarri zen martxan praktika eraldatzaile hau zuen ikastetxean?

Ikertze eta Calcuta Ondoanetik iritsi zitzaigun gonbitea. Zubiri Manteo BHI-ren barruan kokatzen den Merkataritzako mintegian irakasle berri asko geunden eta Okendoko eraikinerira iritsi berri ginen. Ilusioz ekin genion ibilbide honi, gauzak egiteko gogoz geunden eta proposamena mintegira eraman genuenean aho batez onartu zen.

Zer beharrei erantzuten die?

Hasieratik ikusi genuen egitasmoak guk ikasgelan lantzen genituen merkataritzako edukiekin harreman zuzena zeukala eta aberasgarria iruditu zitzaigun zentzu horretan. Gainera, gure ikasle askok gerora jende aurrean lan egingo dute, beraz, gai hauen inguruko hausnarketa egitea oso positiboa iruditu zitzaigun. Bestalde, iruditzen zait, pertsonak orokorrean, baina nerabeek bereziki, badutela indibidualtasunetik atera eta bestea onartzeko beharra eta programak ekarpena egiten du zentzu horretan ere.

Nork hartu du parte?

Mintegiko irakasle guztiek (hezkidetza prozesuaren diagnostikoan, formazio desberdinetan, ikasgelako tailerrak jarraituz, antolakuntza bileretan...) eta erdi eta goi mailako zikloetako ikasleek.

Zeintzuk dira topatu dituzuen zailtasun nagusiak?

Ikastetxeetako egunerokotasuna eta irakasleen lana, behin ikasturtea hasita, oso azkar doan zerbait da. Hori dela eta, Begirada Kontzienteak bezalako ekimenak programazioetan txertatzea kostatu egiten da. Badirudi irakaskuntza prozesua urpekari moduko

bat bihurtzen dela eta ez dago gogoetarako ia denborarik. Horretaz gain, gizaratean gertatzen den bezala, ikasleengan eta bereziki mutil batzuegan eduki horien aurrean pizten diren erresistentziak ere aipatuko nituzke.

Zure ustez, zeintzuk dira aurrera begirako erronka nagusiak?

Aurreko galderan erantzundakoarekin lotuta, denboraren kudeaketa aipatuko nuke. Uste dut era honetako egitasmoak, parentesi bihurtzea baino, programazioetan txertatzen asmatzea dela gakoa, zehar lerro bihurtzea eta horiei kalitatezko denbora eskaintzea. Sistemaren edo ikastetxearen eredia da aldatu beharrekoa.

Lanketan zehar jorratzen diren edukiak barneratzea ere kostatu egiten da. Adibidez, hizkuntza ez sexistari dagokionez, aldaketa osoa egitea ez da erraza, egoera bidegabeen aurrean ondo erantzutea, ikasleak mindu gabe, kostatu egiten da, etab. Erraza da guztiari bai, bai eta bai esatea, baina lorpena, benetako pausoak ematean datza!




Leire de Miguel
IKERTZE eta CALCUTA ONDOAN elkarlanean
SAN BENITO IKASTOLA
MANTEO BHI IDOIA BUJANDA



enbizi: ilustratzenle@gmail.com

2013-2014tik martxo eta buketzen



ZUBIRI MANTO molako da?
LEIRE

DINOSTIA, GROS
 DEH, Batri, Lanbide
 Heziketa (azken honet indar handia).
 Informatika
 Turismoa
 Administrazioa
 Merkataritza
 MERTKATARITZA desdabilizatu: indargabe, indulgentia
 MINTESIAN irakurle talde konfiantza
 oso ikasle ezberdinalak
 aipozkoa ezakak, baina nafund
 10 urtetik gorra... eta goragora
 euskarazko eta gasteleazko kultureak

nola hasi zen PRAKTIKA. Eraldatzailea
IDOIA

metro gutxitara baina isolatuta indarra eman zigun irakaslegora ikasgariak baina zozor gehiago sinistu baino gehiago laguntzaile merkataritzaan egonda, kontsumoaz lotura, zaltzaile frango dira: giza eta egutzea beharrezko!

PRAKTIKAK zertan datza?
IDOIA



IKASLEEN garapen integrala BIZIKIDETZA arduratsua & kritikoak izatea gutxia merkataritza eramananda. GEBERO, jokabide batzuetatik Bideziko kontsumoaren kontzientzia Deskolokazio, produktu merke mugurutzia IDENTITATEAK: ikasgai, ekin, gure eta LOTURA

bidetza
TAILERRAK PASOAPASO

Irakasleak eta GRIAK, programaren EDUKIARI Kurrikuluma nola kutsatu duten

PUBLIZITATEAREN azterketa egiteko lagungarriak izan ziren ELKARRIKEN ARTEKO herreman pertsonalak, autobalorazio partibidea eta empatia lantzeko elkarpenak

Bidean topatutako ZAILTASUN eta ERROKAK



Zaitasund erresistentzia gisa hartuta. INERTIA handiak kuzerikulum itriak non eta noiz mugatua Irakasleon zama Jatorria kultural, bizitzak, beira Ikasleen erresistentziak zama kultural, bizipenak KONFIDENTZIA eta ERROKAK bidezko ikasketak ERDI bide baten egin daitezke FORUUA itria dugu sistemaren kontrako bonoka eskatzen du. COVID garaietan zaitasun gehiago

Anteko bidetza dagoenari AHOLKUREN bat



Esperientzia POSITIBOA Komunikazeko erretasuna Materiala eskura moldagarritasuna Irakasleok behar dugu ENTZUN EKINTZA TXIKIAK baloratu!!



Harrotu ileak. Identitateak, harremanak eta gazteak.

Tabakalera hezkuntza eta Darkum Elkarteak

ESPERIENTZIA

Hasiera batean, saio honetan Darkum elkarteko Sara Mchichou eta Ahmad Abou Messaouda gazteek hartu behar zuten parte, esperientzia honetako haien ikuspuntua azaltzeko. Darkum (zuen etxea) elkarteak gazte migratzaileen egitasmoa da, inklusioa bultzatzeko asmoarekin sortua, eta Tabakalera Hezkuntza saileko taldearekin egindako elkarlanarekin osagarria dena. Gaurkoan, tamalez, Sara eta Ahmad ezin izan dira zuzeneko aurkezpenean egon, eta bideo bidez helarazi digute azalpena. Tabakalerako hezitzailea den Leire San Martin dugu gurekin, Harrotu Ileak egitasmoa zertan datzan kontatuko diguna.

Zertan datza praktika zehazki?

Ostiralero arratsaldeko bostetatik zortzietara Tabakalerako espazio desberdinetan elkartzen gara jarduera kulturalak aurrera eramateko. Besteren artean, Harrotu ileak-en gazte, sortzaile eta hezitzaileen artean harremanak eraikitzen dira, gazteen beharrei erantzuten dieten jarduerak antolatzen dira eta espazio kolektibo bat eraikitzen da.

Zer beharretatik abiatu zen esperientzia?

Testuinguruan kokatzeko, Harrotu Ileak egitasmoa Tabakaleraren irekierarekin batera hasi zen. 2015etik aurrera eraikinaren espazio irekietan gazte asko eta asko egoten ziren, praktika kultural propioak garatzen (musika entzun, dantzatu...) eta espazioa haien erara erabiltzen. Alde batetik, Tabakaleratik erabaki zen beraiekin elkarlanean hastea, instituzio kulturala haien praktikez eragitea, instituzioaren beraren prozesu eraldatzaile gisa ulertzen delako. Bestetik, Tabakalerako langile batzuen esparruan hainbat arazo sortu ziren, hala nola garbiketa edo/eta segurtasun lanetan, eta zentzu horretan gazteekin batera eraikinaren erabileraren inguruko hausnarketa egitea beharrezkoa ikusi zen.

Hasiera batean, egitasmoak Tabakalerako espazioaren erabileraren kudeaketa planteatzen zuen (garbiketa eta segurtasun ekipoen aldetik batez ere), eta, era berean, Tabakalera bezalako erakunde batean gazteak erakarri nahi izatea ere bazegoen. Pixkanaka, gazte partaideen beharrak ikusgarri egiten hasi ziren, eta lehentasunak ikusita, behar horiek pasa ziren proiektuaren erdigune izatera.

Zeintzuk dira praktikaren helburu orokor eta zehatzak?

Arte garaikidea tresna gisa erabiltzen ikasi eta arte garaikidearen nozioa irekitzea izan daiteke proiektu honen zeharkako helburu bat. Horri lotuta, Donostian bizi diren gazte askoren bizitza zaugarriak ikusarazten dira hainbat programa publikoren bidez. Gazteekin batera espazio kolektibo eta segurua sortzen da, eta errelato antiarrazistak eraikitzen dira. Erakunde barruan errelato feminista eta antiarrazista hauek sozializatu eta lantzen dira.

Harrotu Ileak taldea osatzen duen gazteen errealitatea Donostiara migratutako gazte magrehtarren eguneroko errealitatea izanik,

honako gaiak mamitzen dira taldearen erdigunean, ikuspuntu interseksionala sortuz: bizi-baldintzen prekarizazioa, horrekin batera datozen pribilegio eta zapalkuntzak; erakunde, hezitzaile eta parte-hartzaileen arteko harremanak; zaurgarritasuna, kolonialismoa, ekonomia, behar kultural ezberdinak... Harrotu lleak egitasmoa prozesuan izandako gorabeherak, erronkek eta ikasketek zeharlerrotu dute, eta guzti honi buruz aritu gara Tabakalera Hezkuntzako arduraduna den Leire San Martinekin solasean.

Harrotu lleak egitasmoa Pedagogia Queer Feministatik eta Herri Hezkuntzaren ikuspuntutik abiatzen da, hezkuntza prozesu kritikoa jorratuz eta hezitzaile eta erakundearen rola auzian jarritz. Gazteen eta hezitzaileen arteko elkarriketatik sortutako egitasmo honek espazioaren erabilera, aniztasuna eta kultur sormena landu ditu, pixkanaka eta aipatutako zailtasunekin eraikitako harremanean. Leirek dioen moduan: "Denbora kolonialetan mugitzen ari ginela konturatu ginen, eta hortik aurrera tea hartzeko elkartzen hasi ginen".

Besteren artean, zinema eta musikaren bitartez landu dute interseksionalitate hori, Sausan eta Raschid LGTBIQ aktibista marokarrak gonbidatu zituzten, Zapalduon Antzerkiarekin saioak egin eta, azkenaldian, serigrafia tailerren bitartez dinamizatu dute topagune hau, gazteek haien marka propioa sortu eta autogestionatuz.

Zer ikasi duzue prozesuan?

Leireren esanetan, jasotako diru-laguntzaren kudeaketaren inguruan izandako gatazkak eragin zuen prozesuan izandako ikasketa nagusietako bat: batzuetan erakundearen eta gazte

taldearen artean talkak egon dira, batez ere kudeaketa ekonomikoari dagokionez. Erakundeak ateratzen duen gainbalioa eztabaida bezala hartu izan da proiektuan, eta horrek proiektuaren formari aldaketak eragin dizkio. Arrazaren, klasearen eta generoaren ardatzek gurutzatzen duten proiektu bat izaki, zailtasun interseksionalak agertzen dira, eta horiek proiektuaren osieran eragiten dute. Bestalde, "programazioa ezin da norabide bakarrekoa izan". Gazteek kudeaketa ekonomikoari egin zioten kritikatik abiatuta ("Zergatik dirua kanpoko norbaiti eman eta ez guri?") talde izaera hartu zuten (Gerora Darkum elkarte osatuz) eta erakundeak ateratzen duen gainbalioa auzitan jarri.

Aholkuak edo gakoak

Halako egitasmo bat gauzatzen ari den ikastetxe, elkarte edo hezitzaile taldeari aholkuren bat ematekotan, hau litzateke: inguruan gertatzen denari oso adi egotea behar-beharrezkoa da, eta eraikitzen den espazioa asko zaindu behar da. Nahiz eta alde aurretik espero dena ez atera, proiektuak forma ezberdinak har ditzake, eta hori gauza on bezala hartzea positiboa da. Praktikan pertsona eraldatuko dela argi eduki eta horretarako prest egotea funtsezkoa da.

Harrotu ileak

identitatea, harremanak eta gazteak
 identidad, relaciones y jóvenes
 هوية، علاقات و شباب



Oihan Martirena
Dinamizador

Leire San Martín
Responsable Mediación Tabakalera

BEGIRADAK PARTEKATUZ intercambio de experiencias



Sarah · Rashid

TABAKALERA HEZKUNTZA ARLOTIK
ETA ARTISTEEKIN ERE
KOLABORATZEN

MIGRAZIO PROZESA EZ BERDINAK
 FAMILIARIK GABE (BATZUEKIN)
 AYUDAS ASISTENCIALES Y PATERNALISTAS

MIGRANTE

BATEZ ERE AFRIKAKO
IPARRADETIK BAINA
EZ BAKARRIK



Encuentros con los jóvenes para hablar de lo que les gustaría hacer

inicio

ARGAZKI, AUTORRETOEN
BIDEZ GAZTEAK EZAQUZTEKO
AUKERA

CINE
SERIGRAFÍA
MÚSICA
GÉNERO-RAZA



DONOSTIA ETA
MIGRAZIO PROZESUEN
INGURUKO TOPAKETAK

Se sintieron interpelados

nire iritzia



Asociación independiente para apoyar, aconsejar, asesorar, orientar, animar, motivar, acompañar y dar oportunidades para cambiar la situación y mejorar la vida.



Algunos temas resultan demasiado sensibles para una parte de los participantes



Debido a la situación precaria de algunos jóvenes, ver que el proyecto recibía ayudas pero ellos malvivían, no fue de su agrado.

‘Gu sortu ginen enbor beretik, sortuko dira besteak’.

Alboan eta Oriarte BHI

ESPERIENTZIA

Aurkezpenean Lasarteko Oriarte institutuko irakasleak diren Irma Arnaiz Guillének eta Itsaso Garmendiak hartu dute parte.

Zertan datza zuen esperientzia eta nola hasi zen?

‘Gu sortu ginen enbor beretik, sortuko dira besteak’ jardunak bost urteko ibilbidea du, eta hezkuntza komunitate osoaren inplikazioz eraman da aurrera Lasarteko Oriarte BHI institutuan.

Oriarte institutuan 2013an hasi ziren hezkidetzari buruzko lanketa sistematikoa aurrera eramaten, nahiz eta aurretik bazeuden gaiarekiko sentsibilitate berezia zuten hainbat irakasle; horren adierazle da garai hartako zuzendaritza taldeak irakasle bat Berritzeguneak antolatutako mintegira bideratu izana.

Bertan, hezkidetzeta-plana eskolan txertatzeko formazioa jaso zuen eta, plana diseinatzearekin batera, Hezkuntzaren baiezkoa jaso zuten. Horrela, 2014-17 hirurteko planari hasiera eman zitzaion. Hiru ikasturtetan banatzeko 9 orduko liberazioa onartu zen eta hezkidetzeta arduradunak eta beste 3 irakaslek osatutako lantaldea izan zen lehenengo plan haren motorra. Esan behar da Zuzendaritza Taldeak nolabaiteko apustua egin zuela plan

horren alde, hezkuntzak emandako 9 ordu horiei beste 3 ordu eman baitzizkion eskolako orduen poltsatik. Beraz, esan genezake garai horretako Zuzendaritza Taldeak behar hori ikusten zuela. Hala ere, guztiz garrantzitsua da talde eragile hark Zuzendaritzaren, Klaustroaren eta Eskola Kontseiluaren aldetik jasotako sasi-babesa azpimarratzea. Zergatik sasi-babesa?

Kontzeptu horretaz hitz egitea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu. Politikoki Klaustroak, Eskola Kontseiluak eta Zuzendaritza Taldeak ezin zion eta, egun ere, ezin dio bizkarra eman behar honi; hala ere, horrek ez du esan nahi kontzientzia dagoenik, hau da, hortik ez da ezinbestean ulertzen gai hau osoki eta transbertsalki lantzearen aldekoak direnik. Izan ere, gehienok gaude hezkidetzaren eta parekidetasunaren alde noizean behineko lanketa bat egitearen alde, jakina; baina besterik da erabateko konpromisoa hartzea. Denok jaso dugun hezkuntza da arazoaren muina, kutsatuta gaude; hezkuntza patriarkala, matxista jaso dugu eta barnean dugu, erraietaraino sartuta. Egunero desikasi behar dugu parekidetasuna lortu nahi badugu. Beraz, Hezkidetzeta Taldearen lana bikoiztu, hirukoiztu egiten da maiz. Eskola komunitatea heztea da helburua, erronka eta afera.

Lehen sentsibilizazio fase horretan burutu genituen, besteak beste, aldarrikapen egunetako sentsibilizazio-lanak eta irakasleei eta ikasleei zuzendutako hitzaldiak; esate baterako, Marian Moreno, Mikel Otxotorena, Josebe Iturriotz, Virginia Imaz, Iratxe Alvarez eta Itziar Sanz de Ojerren bidez. Honakoak izan dira burutu ditugun beste hainbat formakuntza:

- Egun zehatzetan (hala nola, azaroak 25, otsailak 14, martxoak 8, maiatzak 17) ekintzak antolatu eta aurrera eraman.
- Batxilergora bideraturiko autodefentsa feminista tailerra, EMAGIN elkartearen eskutik eta Lasarteko Udalaren laguntzaz.

- Sinboloen/Sinbologiaren garrantziaz hausnartzea, eta ikastetxean horri ere bere lekua ematea.
- Trans protokoloa eta genitalen mutilazio protokoloa lantzea irakasle taldearekin.
- NAIZEN eta Ekaitz Goikoetxearen eskutik TRANSformatzen; dokumental emanaldia, erakusketa bat burutu zuten edukiak lantzeko.

Zein dira zuen helburuak gaur egun?

Gaur egun 2018-21 II. Hezkidetza Planean murgilduta gaude bete-betean; izan ere, Hezkuntzak bigarren aldiz plana onartu zuen. Hauxe dio, labur-labur, plan horrek: lehenengo urtean, sentsibilitatea landu behar dela; bigarreanean, diagnostia egin; eta, azkenik, hirugarreanean, era integralean landu behar dela, hau da, curriculumean txertatu behar dela hezkidetza.

Diagnosiari dagokionez, Alboanen laguntzaz eta metodologia parte-hartzailea erabiliz egin genuen eskolako diagnostia 2019-20 ikasturtean. Ezinbestekoa da egoera zein den zehazki jakitea, etorkizunean zer landu nahi den gorpuzteko. Hauek dira diagnosi metodologia parte-hartzailearen bost zutabeak:

- Irakaskuntzako eta ikaskuntzako ereduak, erakundeen politikak eta ekintza-planak
- kastetxearen egitura eta antolaketa
- Jarduera akademiko eta kurrikularrak
- Ikastetxeko guneak, curriculum ezkutua eta kultura
- Norberaren zaintza, elkarren zaintza eta ingurunearen zaintza

Egoera zein den jabetuta, argi ikusi genuen bidea: II. Hezkidetza Plana eskolan eta curriculumean txertatu behar da, zehar-kompetentziak oinarri.

Curriculumean txertatzeko erarik onena eskola-komunitate osoak diseinatu eta parte hartuko duen egitura sortzea da. Esate baterako, ikasgaietan isla izateko, programazioetan II. Hezkidetza Planeko zutabeak kontuan hartzea; ikuspegi parekidea ez galtzeko, Elkarbizitza Batzordean hezkidetza arduradunak parte hartzea; eta, denon eskari eta nahiak kontuan izateko, etengabeko harremanetan egotea guraso, ikasle eta eskolako gainerako langileekin.

Zer erronka topatu dituzue prozesuan zehar?

Etorkizunerako erronken artean, zenbait eraldaketa proiektu ditugu, esaterako: patio hezitzailea, irakasleen formakuntza zehatza, hezkidetza curriculumean sartzea, eraso sexistei erantzuteko protokolo bat sortzea edota gurasoen konplizitatea lortzea.

Berritzegunea topagune gisa ikusten dugu, babes gisa; hezkidetza mailan egiten ari garena beste hainbat irakaslerekin hitz egiteko eta kontrastatzeko topagunea da, baita beste hainbat eragileren berri izateko ere.

Zein gako edo aholku luzatuko zenizkioke beste irakasle talde bati?

Oinarrizko hiru gako daude: alde batetik, hezkidetza-plana aurrera eramango duen arduraduna izatea, bestetik, Zuzendaritzak, Klaustroak eta Eskola Kontseiluak plana nolabait babestea; eta azkenik, legearen babesa. Hirurak ezinbestekoak dira plana arrakastatsua izateko.



gu sortu guren
Sortuko dira besteak

ALBOAN - ORIARTE BHI
AMAIA IRMA eta ITSASO
galdetu & jdatzi lasai!
itsaso garmendia @oriarte.eus

HEZKIDETZA plana
ADOSTUA den heinean BABES bat da
Hezurdura + forez janetza

1. HELBURUA ARSOI
2. SENSIBILIZAZIO LANA aldarnikapen egumetan
3. EKINTZAK - auto-defentsa feminista tailerrak ENASIN-ekin ahalduntze profesionala
4. SINBOLOAK ikasketean eduki ikasleek landua apustu argia


(auto) DIAGNOSTIKOA
ZER BEHAR DUGU?
NOLA DAGO HEZKUNTZA KOMUNITATEA?
EPEA - 2 - 2'S URTE

Metodologia
PARTEHARTZAILEA
5ZUTABE

ofizialki ZER erabiltzen du gure ikasketek? Hezkidetzaz azaletzen da? POLITIKA eta EKINTZA PLANA	male bantzen du parte? EGITURAZ eta ANTOLAKETA	JARDUERAK AKADEMIKO KURRIKARRA testu liburu, adibide, material esagarri	IKASITXEKO GUNEAK Ze eredu erabiltzen dugu? bideo, txanp, irudi...	ZAINZA: NORBERA, ELKAR, NATURA. (defensoren de la TIERRA materiala ALBOAN)
--	--	---	--	--



- ↳ MARIAN MORENOB Konplizeak iraditu, behin eta berri
- ↳ Planen jarrir eta gero egin-eta egin, Berri zeguena - irakri izan da
- ↳ TRANSBERTSALASUNA gortil behera esker eta eskuin, irakde, mintegi, batorde, zuzendaritza, klaustron, sigano goren, hezkuntza...
- ↳ Azaroak 26
- UNITATE DIDAKTIKO lanlata aurkezpena zuzendaeitzaren babesean ez datu nik egin: eSkolak egin du



ikasleekin egin erual ditra **aldaketaren** SUJETA, AKTIBO izan daitezela

Sinergiai SORTU
ELKARLANA enospatatu egiten utzi: **AUTONOMIA** ez aitatasun ez amatasunez

3. TXERTATU programazio GUZTIAN BIO GEO MATE HISTORIA EUSKERA LITE
KURRIKULUMEAN Kompetentziak daude

6. BALORAZIOAK
7. FERRONKAK

SPATIO Hezitzailea + espaziaren hezkidetzaz IRAKASLEEN FORMA ZIO ZEHATZA HEZKIDETZA KURRIKULUMERATZEA KEBASO SEXISTEN PROTOKOLOA GURASDEN KONPLIZITATEA

"Konformatzen gara honekin"

BORTXATZAILEA ZU ZARA

eneritz.illustratzaile@gmail.com

Transpatioa.

Elizalde Herri Eskola, Guraso Elkartea eta Tabakalera hezkuntza

ESPERIENTZIA

Zein helburu ditu zuen esperientziak eta nola hasi zen?

Transpatioa proiektuak, Elizalde eskolako jolasgunea abiapuntutzat hartuta, harremanetan eragin nahi du. Eskolako kanpo-espazioa heziketarako gune bat gehiago dela ulertzen da. Bertan harreman sozialak garatzen dira eta hurrek eredugarriak diren rolak ikasten dituzte. Horregatik proiektu honetan eskolako patioa TRANS bihurtu nahi da, kontzientziazioa eta pentsaera eraldaketak helburu nagusitzat hartuta; gune TRANSformatzailea, TRANSgeneroa, TRANSgenerazionala, TRANtsizio gune bat eraikiz.

Espazio fisiko baten eraldaketa bertan gertatzen diren harremanen lanketarekin batera joan behar denez, 2019ko irailetik 2020ko abendura bitarteko fasean lan hau egin da. Fase honetan Tabakalerako hezitzaileen laguntzaz metodologia berriekin lan egiteko apustua egin dugu; praktika artistikoak txertatu dira prozesuan, helburu eta objektu baino, bide berriak esploratzeko aukerak zabaldu asmoz. Prozesuaren erdigunean gorputza jartzeko proposamena egin da, bizipenetatik eta esperientziazioetik lan eginez.

Horretan, Tabakalerako hezitzaileekin batera, Ageda Blasco aktibista ere bidelagun izan da. Proiektuak bere baitan biltzen dituen hezkuntza eragileak marko komun batean kokatzeko asmoz eta proiektuan zehar garatutako lanari ikuspegi integral,

sakon eta erradikal bat emanez, hiru ardatz teorikoren gainean lan egitea proposatu du; sinbologiaren esanahia, dikotomiak desegin eta aniztasuna eta desberdintasunari bide egin, desberdinkeriak ekidinez. Zehaztapen honek eskolan sortzen diren harreman eta dinamiken behaketa du abiapuntu, eta iturri ezberdinetatik edaten du: pedagogia arraroak edo queer pedagogiak, gorputz adierazpena eta gestalt terapia. Hauen uztarketarako tresna izan da artea, tresna eraldatzaile bezala ulertuta.

Prozesu honetan zehar izan dira beste gonbidatu batzuk ere. Ikasleekin lan egin dute Maitri Ugalde artistak, Juntura kooperatibako arkitektoek eta Harkaitz Martínez de San Vicente musikariak.

Bestalde, Transpatioa hezkuntza-komunitatean apustua denez, garrantzia hartzen du lan-talde anitz batekin lan egiteak: irakasleak, gurasoak, hezitzaileak, artista, zuzendaritza, jangela, udala.

Zein dira etorkizuneko erronkak?

Etorkizuneko erronka handienetako bat halako eraldaketa proiektuek behar duten jarraitutasuna lortzea denez, osatutako markoa oinarri bezala hartuta dekalogo eta glosario bat sortu da. Horiekin, aurrera begira egingo den lana edukiz betetzea da asmoa; izan ere, garrantzitsua ez da zer egiten dugun, baizik eta nondik eta zer jarrerarekin egiten dugun. 2020ko abenduan Transpatioa proiektua fase berri batean sartuko da eta erronka berriak ditu esku artean. Ikasleak erdigunean jarri eta haien ahotsa kontuan hartuz eskolako kanpoko espazioaren diseinua garatzen hasteko asmoa dago. Horrekin batera, hainbat gairen inguruan hausnartzeko eta hezitzaileak formatzeko tarte hartu nahi da: nola egin eskolako kanpoko espazioa espazio hezitzaileago bat, askatasuna eta mugak, gatazken kudeaketa, arauak, materiala eta horien sinbologia, hezitzaileen rola...



Feminismoak eskolan.

Lauaizeta BHI

ESPERIENTZIA

Feminismoak eskolan tailerlean, Matti Navasek Lauaizeta eskolako ikasleekin sortutako Talde Feministan izandako bizipenak partekatu dizkigu. Guztion artean etorkizuneko talde feministen erronkez aritzeko galderak eta hausnarketak egin ditugu: Nola? Zer egin? Nortzuekin? Zertarako? Bere esperientzietan oinarrituta, izandako zailtasunak eta lorpenak kontatu dizkigu.

Zertan datza eta nondik abiatu zen esperientzia?

Hezkidetzan nire kabuz lantzen jardun ondoren, eta Berritzeguneen aholkularitzarekin batera, Hezkidetzan Plana eskatzea erabaki genuen ikastetxean. Horrela, irakasle batek gai horri eskaintzeko ordu libreak izango zituen, hezkidetzako arduradun bezala. Hori oso garrantzitsua da, irakasleen jardunean gai bati eskaintzeko fundamentuzko denbora eta baldintzak izatea ezinbestekoa baita.

Hezkidetzan-arduradun gisa lehen pausua material bilketa bat egitea izan zen, ikusi genuelako egutegian markatutako egunetara soilik mugatzen diren ekintza isolatuek azkenean indarra galtzen zutela.

Bestalde, Lauaizetako Talde Feminista osatzeko gonbitea egin zen. Generoaren edo sexu-orientazioaren araberako bereizketarik ez egitea

erabaki genuen; feminismoan eta LGTB gaian interesa zuen eta konpromisoa mantendu ahal izango zuen ikasle orori zabaldu zitzaion deialdia. Eskola esparruan talde feministara mutilak ere gonbidatzea kontzienteki hartutako erabakia izan zen. 25 kide inguruko taldea osatu zen, haietako bi mutilak ziren.

Taldearen beste ezaugarri bat izaera irekia da; ikasleek urte osoan zehar aukera izan dute taldean sartzeko. Kontutan hartu behar dugu, baita ere, hezkidetzan tailer hau Hauspoaren baitan ematen diren tailerren artean kokatzen dela.

Azkenik, horrelako talde bat sortzeko beste ideia garrantzitsu bat espazio seguru bat sortzea da. Taldean gertatzen edo hitz egiten zena taldean geratu behar zela adostu zen, taldea babes eremua izan zedin. Oinarri horrekin lan egiten hasi ginen.

Nola jarduten zenuten talde feministan?

Taldeak lehendabizi egun zehatzetarako (martxoak 8ko greba, maiatzak 17ko ekintza zuzena, A25) egitasmo zehatzak antolatzeko helburua zuen, eta ondoren sortu zen jarraikortasun eta inplikazio gehiagoko taldea.

Partaideek erabakitzen zuten zer landu eta nola landu, eta horretarako, landu nahi ziren gaien zerrenda egiten zen. Adibidez, “Mutilei eraso matxisten aurrean nola erantzun ikasi nahi dugu” kezka adierazi eta argudiaketa feminista landu nahi zuten. Horretarako, pelikulak eta abestiak aztertu, eta erreferente feministak eta hiru pertsona trans gonbidatu zituzten haien bizipenak kontatzera. Azpimarratzekoa da, gonbidatutako pertsona transak talde feministako ikasleen adin bertsukoak izanik, modu berezian

konektatu zutela elkarrekin, eta gaia helduen ikuspuntutik landu ordez, ikasleen interesak izan ziren ardatz. Bestalde, “termometroa” deituriko dinamiken bitartez hausnarketak egin zituzten, eta abar.

Zer erronka topatu dituzue prozesuan zehar?

Eskolako irakaslea izanik, harreman hierarkikoa hausteko ahalegina eta muga batzuk jartzen jarraitu behar izatearen arteko tentsioa kudeatzea izan da erronketako bat. Hau da, nola horrelako taldeetan, zeinetan hausnarketa prozesuen bidez, nahi gabe irakasle harremanak ere auzitan jartzen diren, irakasle roletik aldentuz ikasleekin hitz egiteak, gertutasun horretatik lan egitea ahalbidetzen duen, baina, bestalde, ‘gehiegizko’ konfiantza ere sor dezakeen. Ibilbide horretan, irainetik, hausnarketa egitera eta mugak ezartzeko ikaspenera igaroaz.

Amaitzeko, teoriak gain, praktikaren botere eraldatzailea azpimarratu nahi nuke, praktika baita benetan hezkidetzak egiten duena. Bestalde, mutilekin ere lan egitearen garrantzia aipatzekoa da. Izan ere, hamahiru, hamalau edota hamabost urte dituzten mutilei matxista etiketa ekidinez urrutiago heldu gaitezke, gu haiek ere hezteko eta eraldatzeko gaude-eta. Horretarako gure gizonezko kide aliatuak formatu behar ditugu, mutilak haiengana joan eta maskulinitatea lantzeko aukera eskaini diezaioten.

feminismoak
ESKOLAN
Matti Navas Los Arcos
Lanbidea BHI

Jendetza!! DENAK NESKAK!!!
astean behin (eguardian)

ikasleak begiraLeak
t a i l e r r a k
Neska talde 1
boluntario

hauspoa
proiektua

to BE CONTINUED...

Talde Feminista!!
adina: DBH3/DBH4.
helotasuna
- neska* soilik
- mutil* batzuk kanpoan

indarkeriak
lantzeko
ligatze
talerra
LGTBIQ+
pertsonak
inplikatzeko
inplikoa
lortzeko

TALDE FEMINISTA
Nondik sortu zen?

GREBA FEMINISTA

neskak + LGTBIQ+
talde feminista

ekintzak

hezkidetza
plana

IKASLEEN
inplikazioa
? Non daude
ikasleak?

ez da talde
itxia
ezagarririk:
• toki segurua
• elkar zaintza
• whatsapp taldea

termometroa:
nau matxista da?

arduradun bakarra: matti
BABESA
Zuzendaritza
taldea

MOODLE
materialak (...)

ZER
egin nahi
duzue??
"Mutilei
hola
erantzun"

MUGAK JARRI
ESKOLAKO
IKASLEA NAIZ
ZAILTASUNA

simpletasunetik
abiatur

@Bikitxub



5. **TAILERRAK**

| Eraiki |

Hezkidetzeta eta Aniztasuna.

**Maddalen Ruesgas eta
Natasha Rueda | Goian**

AURKEZPENA

Goian auzokidetasun osasuntsua helburu duen Gasteizko Alde Zaharreko **komunitate egitasmo hezitzailea da**. Elkarbizitzan sakontzea bilatzen dugu, pertsona, eragile eta erakundeen arteko komunikazio eta elkarlanaren bitartez. **Eta nola egiten dugu hori? Aisialdiaren eremuan** lan eginez, Alde Zaharreko auzokideekin, haur gazte eta helduekin.

TAILERRA

Tailerraren helburu orokor eta zehatzak:

Hezkidetzaren oinarrien inguruan hausnartu:

- Goianen esperientzia ezagutzera eman
- Erlatibismo kulturala alde batera utzi
- Egoera pertsonalen eta kolektiboen inguruko kontzientzia izateak duen garrantzia azpimarratu
- Gatazkek sor ditzaketen desadostasunen aurrean garrantzizkoa dena eta ez dena desberdindu

Landuko diren gaitasunak:

- Gizalegezko gaitasuna
- Aniztasuna errespetatzea
- Pentsamendu kritikoa eta sormena
- Hobekuntzarekin konpromisoa eta etengabeko ikasketa

TAILERREAN PARTEKATUTAKOA

Goian gizarte-hezkuntzako proiektu bat da, eta Gasteizko alde zaharrean komunitate-lan intersektionala egiten du, hezkidetzatik abiatuta. Pribilegioak eta zapalkuntzak detektatzeko hainbat dinamika erakutsi dizkigute, haurrekin lan egitean erabil ditzakegunak.

Hezkidetzeta ez ezik, aniztasuna ere lantzen dute: erritmo ezberdinak, funtzionalitateak, ikasteko gaitasunak, kultura-aniztasuna, alderdi ekonomikoak eta sexualitatea, esate baterako. Aniztasuna elementu aberasgarri eta ez-baztertzailer gisa ulertzen dute.

Goian-en parte-hartze zuzena, talde-lana eta elkartasuna bilatzen dituzte, eta haien lehentasuna auzokoen, gizarte eragileen, kolektiboen, gizarte zerbitzuen eta abarren arteko tokiko sareak sortzea da.

Tailerrean azpitaldetan banatu gaituzte, bi galderari erantzuteko, eta ondoren guztion artean hausnartu dugu.

1. Dinamika: Zer pribilegio dituzte gizonek?

Soldaten arteko aldea, segurtasun-sentsazioa, komunikabideetan eta kulturaren industrian presentzia handiagoa, lanean prestigio handiagoa.

2. dinamika: Zer pribilegio dituzte zuriak gizarte arrazializatu batean?

Taldeak erantzun du aurrekoen antzekoak direla. Erantzun gehienak pertsona migratuek jasaten dituzten eta pertsona ez-arrazializatuek jasaten ez dituzten zapalkuntzekin lotutakoak dira.

ONDORIOA

Gizarte matxista bat onartezina iruditzen bazaigu, onartezina iruditu beharko litzaiguke gizarte arrazista bat. Dinamika honek balio dezake pertsona arrazializatuek jasaten dituzten egiturazko zapalkuntzak agerian uzteko.



HEZKIDETZA eta ANIZTASUNA

Km0 MAGIA PLAZERA

GOIAN Maddalen Ruesgas
NATASHA RUEDA

GOIAN gida hezitzailean

bilatu sarean!
ESKURAGARRI



educación igualitaria
paritaria, equitativa
valora y VISIBILIZA
las diferencias

+ niñas & niños
adultos del barrio
SER PARTE ACTIVA
de la SOCIEDAD

Komunitate
EGITASMO
hezitzailea



zenbat
ANTZEKOTASUN!

gasteekin
lantzeko aukera
ELKARRIZKETARAKO



PERSONA ZURIEK
JENDARTE ARAZISTAN
ditzuten PRIBILEGIOK

- GIZONEZUEK
- JENDARTE
- MATXISTAN
- ditzuten
- PRIBILEGIOK
- Salario
- seguridada
- espazioaren erabilera
- prestigia (kon kultura...)
- enkonozimendua
- zaintza "ez nagusi"
- nitza ez landu
- bazkide eskubideak
- mitontraximokak
- estatuak
- iruditegia
- periferiazko
- zaintza gizonen

- Puestos de trabajo, entrenistas
- Alquiler casa
- más voz, participación
- Iruditegia film, argazki, ...
- Autoritate lege aurrean, sinergiaztasuna
- Botere partetaria heltzeko erretasuna
- Harremaneteko
- lose konpenentia-kirri-musika...
- Bertokotasunak erandako "konfiantza"
- informazio pertsonalaren erabilera EZA
- Aurreiritzi gutxiago
- Susmagarritasun txikiagoa
- TOBEA izatearen gutasuna → inpreaketa



ENTZUN, dialogar
★ zer da GARRANTZISUA?
zer negoziagarria

gatazken
KUDEAKETA



hizkuntza inklusiboa

enbretz. ilustratzaile@gmail.com

Tratu Onen Kultura Erotikoa: Ligatze Jatorraren Oinarriak.

**Nerea Sancho Esnaola | Arremanitz
Kooperatiba**

AURKEZPENA

Nerea Sancho Esnaola psikologian lizentziatua da, eta sexologian aditua. Azken 20 urte hauetan sexologiako hainbat esparrutan egin du lan: unibertsitateko irakaskuntza, sexu eta bikote terapia eta sexu hezkuntzaren alorreko materialgintza eta dibulgazioa, besteak beste. Egun Arremanitz Kooperatiban egiten du lan, eta Tratu Onen Kultura Erotikoa sustatzeko proiektuaren arduraduna da bertan.

Arremanitz Kooperatibak 10 urteko ibilbidea egin du Tratu Onak, Parekidetasuna eta Sexologia lantzen. Hezkuntzan eraginez, jendartean eraldaketa bilatzen duen profesional lantaldea da.

TAILERRA

- Tratu onetan oinarritutako harreman osasuntsuak eraikitzea, gure gorputzez, erotismoaz eta plazeraz jabetzeko eta ahalduentzako aukera emango digun sexuen hezkuntza eredu batetik abiatuta.
- Talde handian eta txikietan, festa baterako ligatze dekalogoak sortuko dugu. Zaintza erdigunean duen eztabaidan, guztion artean tratu onen hainbat giltzarri identifikatuko ditugu.

TAILERREAN PARTEKATUTAKOAK

Tailerra hastean, talde txikitan bildu gara, lehenengo ariketari ekiteko: "Nola irudikatuko zenukete zuen gustuko ligatzeko festa?". Festa horretan zer egingo den eta zer adineko eta sexuko pertsonen parte hartuko duten zehaztu dugu.

Talde handian elkartzean hausnarketa hauek azaldu dira:

- **Lehenengo taldea:** 13-17 urte arteko pertsonen festa, sexu guztiak ongietorriak izango dira eta mahaiaren inguruan eseri ahalko dira txandaka lekuz aldatzen joateko.
- **Bigarren taldea:** Adinaren arabera sailkatuta egongo dira festan, txikienentzako zaintza eremua jarriko da. Sexu guztiak ongietorriak izango dira, etxe handi batean izango da eta belardi ireki bat ere izango du.

Jarraitzeko, gure izena beste izen erotikoa batekin aldatzeko eskatu digu; hortik aurrera, gure artean izen erotikoa erabili ditugu.

Hurrengo ariketa egiteko, talde txikitan elkartu gara berriro. Festa batean gerta daitezkeen bost egoera desatsegin aurretik modu positiboan idatzitako arautegi edo dekalogo batekin nola ekidin daitezkeen pentsatu dugu, hau da, egoera bakoitzari hautsi ezinezko “legeak” ezarri dizkiogu.

Elkarrekin sortutako ligatze jatorraren dekalogo:

1. Nahi dugun bezala jantzita etorriko gara eta ausardia positiboki baloratuko dugu.
2. Deseroso sentitzen garenean, horrela sentiarazten digunari ahalik eta modu egokienean jakinaraziko diogu.
3. Ez dugu jarrera homofobo edo sexistarik onartuko.
4. Gustuko duguna zainduko dugu.
5. Intimitatea, pribatutasuna zainduko dugu (gurea eta lagun edota ohekideena).
6. Festan gertatzen denak ez gaitu etorkizunean baldintzatuko (hurrengo egunari edo geroari begira).
7. Bakarrik da ona, momentuan eta etorkizunean ongi sentiarazten bagaitu.
8. Ongi etorriak lehen pauso, saiakera eta adierazpen mota anitzak.
9. Aurreiritziak etxean utziko ditugu.
10. Zerbait esan/egin aurretik egoera eta bestearen nahiak tanteatuko/galdetuko ditugu, ezer jakintzat eman gabe eta ziurtatuz beste parteak ere gustura dagoela.
11. Garrantzitsuena ez da zer egiten dugun, egiten dugun horrek nola sentiarazten gaituen baizik.
12. Zerbait gehiago jakin nahi badugu, galdetu egingo dugu.
13. Nahi dugunean joan gaitzke.
14. Denok dugu zerbait eskaintzeko (pertsonek ahulguneetan zentratu ordez, indarguneetan zentratu).
15. Alkoholik gabe dibertitu gaitzke.
16. Momentuaz gozatu.
17. Aurreko arau guzti hauek betetzen dituen oro da ongi etorria.

Eztabaida: sexuarekin edo nahi edo desirekin negoziaketa egin daitezkeen ala ez.

Bukatzeko, Arremanitz Kooperatibak 2016an antolatutako *Ligodromo* Festaren bideoa ikusiz agurtu dugu elkar.

Tratu onen
kultura erotikoa:
Ligatze Jatorraren
oinarriak. **Nerea Sancho**

« Baietz, baietz da »
TRANSGRESIOA
akordioa Errespetua
JOKOA

DESIOAK
adierazi
ditzagun!!!

Sedukzioa da: bestearen bizi espazioa artez transgreditzea. Honek etenik ez duen negoziazioa eskatzen du.



« Gure dekalogoa »

« Arav guztiak betetzen duen edonor ongi etorria da »



« Ongi etorri lotsatiak! »

« Deseroso nagoenari alde egiteko eskubidea dut »



« Gustuko dudana eskatuko dut »

« Zeozer gehiago jakin nahi baduzu galdetu! »




« Pribatasuna zainduko dugu »

« Denok daukagu zeozer eskaintzeko »



« Momentuaz gozatu! »

« Aurreritziak etxean utzi »



« Dibertitu nahiteke alkoholik gabe »

© Bikihub

Trans*exualitateak.

Lucas Platero Méndez

AURKEZPENA

AURKEZPENA

Ikertzailea Juan de la Cierva-incorporación programan, Psikologia Sozialeko Saila, Universitat Autònoma de Barcelona.

AFIN eta Fractalidades de la Investigación Crítica taldeetako kidea.

Azken argitalpenak:

- **Redistribution and Recognition in Spanish Transgender Laws**
- **Lost in Transition? Digital trans activism on Youtube**
- **Cuerpos Marcados. Vidas que cuentan y políticas públicas** (Bellaterra 2019)

TAILERRA

TRANS, ondorengo artikuluei buruzko gogoeta kolektiboa.

- **Fuera de serie** "Lesbiana batek lesbiana izateari uzten al dio gizon batez maitemintzen bada? Heterosexualitatea eta homosexualitatea aldaerarik onartzen ez duten egitura zurrinak al dira? Sexu-identitatea bakarra eta bizitza osorako da? Ana Rodríguez ekintzaileak lesbiana izaten jarraitzen du, gizon trans batekin bizi den arren. Esperientziek eta desioaren indarrak gogoeta egitea eskatzen dute: nola izendatzen dugu gure burua, eta nola jartzen gara besteek emandako izenaren mende?" Paula Jiménez España
- **La revolucionaria que se travestía del Che June Fernández**, Pikara Magazine
- **Condenadas a 18 años de cárcel por vejar y asesinar a un transexual**. El País
- **Pasar, ¡qué complicado!** "Kitto. Lortu dut. Itxura ematen dut. Zerena? Mutil batena. A zer astakeria. Ez al zen kontua "mutila naizela"? Baina nolako mutila? Inoiz ez naiz mutil zis bat izango, mutil trans-a naiz. Eta ikaragarri gustatzen zait, ez nuke aldatuko, horrela hobeto sentitzen naiz. Baina orain itxura ematen dut. Zis mutila dirudit, horrek dakarren guztiarekin." **Pol Galofre Molero**
- **Pol Galofre: "No soy el primer hombre que se queda embarazado y como sociedad tenemos que entenderlo"**. El Diario
- **Confirman que la muerte de una transexual en Fuengirola es un caso de violencia de género**. EFE

TAILERREAN PARTEKATUTAKOA

Normalean, trans hitzaren ikuspegi medikoekin egiten dugu topo: ondoezaz eta "beste sexura igarotzeaz" aritzen dira. Baina Susan Stryker-en arabera, "trans pertsonak dira jaiotzean esleitu zitzairen sexutik urruntzen direnak". Beraz, ez digu esaten nora doazen, nondik abiatzen diren baizik: jaiotzean egindako esleipen horri uko egitetik. Hau ere gaineratzen dio: "Gizonentzat eta emakumeentzat egokia dena definitzen duten muga kulturalak gurutzatzen dituzte". Definizio hori oso zabala da, eta ia pertsona guztiak egon gaitezke horren barruan.

Dinamika. 4 azpitalde egin, eta bakoitzari artikulua bat eman zaio. Irakurri egin dituzte, eta komentatu dute nola agertzen den trans gaia eta nola bizi duten. Galdera hauetatik abiatuta eztabaidatu egin dute: Nola agertzen da trans gaia artikuluan; arazo, ezaugarri, gertaera historiko edo esperientzia bezala? Zergatik da trans izatea arazoa albiste horretan? Zer dio horrek gure gizarteari buruz? Istoria horiek zalantzan jartzen dute zerbait (sexualitatea, genero-indarkeria, bikotea, familia)? Erantzunak bateratu dituzte.

Parte-hartzaileek zenbait kontu aipatu dituzte: nola gizon trans batek emakume izateagatik jasan zuen jazarpena, aurrena, eta gizon mota jakin bat izateko presioa, gero; nola binarismoa bi laukitxo dituen errealitate bat den, eta zure bizitza konplikatu egiten den laukitxo batean sartzen ez bazara; nola lesbiana izatea gizon batekin maitemintzetik haratago doan; "itxura ematearen" kontzeptua: zenbat eta lehenago egin trantsizioa (operazioa, hormonak...), hobe, baina aldaketa nabaritzen ez bada "arazo bat dago" (adibidez, trans zarella nabari ez bada, erasotzaile potentziala izan zaitezke); NANak zer funtzio duen gure bizitzan (ginekologoak ikus gaitzan, gizon edo emakume bezala hartu gaitzaten...).

"Trans" zer den zalantzan jartzea: NAN-a aldatzea da? Beste gorputz batean bizitzeko beharra da? Beste errealitate bat bizitzeko beharra?

ONDORIOAK

- Trans denak zalantzan jartzen du inguratzen gaituen genero-sistema, eta agerian uzten du binarismoa arazo bat dela, pertsonak eredu batean sartzea behartzen baititugu.
- Pertsona batzuk trans izateko arazoak beste batzuk beste zerbait izateko dituzten berberak dira, baina trans izatea txartzat hartzen da.
- Itxura ematearen aldetik, ez dago posizio errosorik: arauekin bat ez bazatoz, ez duzu itxura ematen, eta arauekin bat egiten baduzu, binarismoa indartzeagatik kritikatzeko zaituzte.
- Gure bizitzan garrantzitsuena NANean jartzen duena da: gure erabakiek oso balio txikia dute.
- Aitzitik, NAN bat baino gehiago gara: badira bizitzeko beste moduak asmatzen dituzten pertsonak, erregistro zibilak, psikiatreak, endokrinok, polizia eta abarrek diotenaz aparte.
- Sexu-identitate horiek boterea dute: pertsona baten zati bat bakarrik ikusten dugu, bere osotasunean ikusi beharrean, eta horregatik aritzen gara interseksionalitateaz. Ez da kontu berria: emakume ezkongabe batek haur bat izaten zuenean "ama ezkongabea" zen eta ez zen besterik. Nortasun hori hain zen arau-hauste nabarmena, ezen pertsona horren bizitzako beste alderdiak estaltzen baitzuten.




Mainer Sagredo
Calcuta ondoan



Nuria Fernandez
Ikertze



trayectoria científica y divulgativa



Lucas Platero

Doctor en Sociología y CC. Políticas

Trans*exualidades



¿cuestionar
qué es lo
trans*?




MIRADA MÉDICA

Negativa

PERSONAS QUE SE ALEJAN DEL GÉNERO QUE SE LES ASIGNÓ AL NACER

No nos dicen a dónde van



PERSONAS QUE DECIDEN VIVIR COMO 'MUJER' U 'HOMBRE'

PERSONAS SIN UNA TRAYECTORIA PREFIJADA

LAS PERSONAS SE INVENTAN MANERAS DE VIVIR

Lo trans* está interrelacionado con otras vivencias...
DISCAPACIDADES
LENGUAJES
PROCEDENCIAS



El binarismo es una marca

Pikara
PASAR, ¡QUÉ COMPLICADO!

EL CHICO SENTÍA QUE HABÍA PASADO DE SER ACCUSADO DE SER ACCUSADO COMO MUJER A VERSE ALINEADO CON LA IMAGEN DE HOMBRE CÍIS 'ACUSADOR'.



elDiario
Pol Galofre: "No soy el primer hombre que se queda embarazado y como sociedad tenemos que entenderlo"

Si no se nota que soy trans, soy un potencial agresor

UNA PERSONA ME HA DICHO A LA CARA QUE 'SOY UNA MUJER'

EL MARCO MÉDICO TE EMPUJA A HACER LA TRANSICIÓN CUANTO ANTES Y 'QUE SE TE NOTE'

EL PROBLEMA ES EL BINARISMO

"pasabilidad"



Como no había cambiado su D.N.I., tuvo acceso a ir al ginecólogo

el texto es muy violento y morboso

EL PAÍS año 2010
Condenadas a 18 años de cárcel por vejear y asesinar a un transsexual

En el artículo, el periodista no sabe qué nombre usar para referirse a la víctima



ES UNA NOTICIA MUY DURA

Página 12
Fuera de serie

¿Una lesbiana deja de serlo si se enamora de un hombre?

sólo vemos una parte de tu persona → te reduce
EDAD SEXUALIDAD IDENTIDAD

INTERSECCIONALIDAD



6. TAILERRAK

| Eraiki II

Gatazkaren eraldaketa positiboa, gorputz- eta arte-esperientziatik abiatuta.

Tr3s Social

AURKEZPENA

Tr3s Social gizarte eta giza zientzietan prestakuntza duten profesionalen osatutako talde bat gara, eta hainbat gaitan espezializatuta gaude: hezkuntza emozionala, prozesuen akonpainamendua eta giza garapena, esperientziaren pedagogia eta ikuspegi sistemikoa.

2012tik, errazte- eta esku-hartze psikosozialeko proiektuak egiten ditugu hainbat talderekin, gizarte- eta heziketa-eremuetan, gizarte-erakundeetan, kolektibo zaugarrietan eta eremu komunitarioetan.

Antzerki soziala eta artea erabiltzen ditugu ikerketa parte-hartzaileko tresna gisa, bai eta eraldaketa pertsonal eta sozialeko prozesuak gidatzeko ere. Gorputza garen guztiaren adierazpen gisa erabiltzen dugu.

TAILERRA

Helburu orokorra:

Botere-egiturei eusten dien sistema birpentsatu eta desegituratzea, elkarriketaren eta gorputzaren esku-hartzearen bidez.

Helburu zehatzak:

- Taldekideek, parte hartuz, generoari buruz planteatutako gatazketarako irtenbideak aurki ditzaten erraztea.
- Gure arteko harremanak berdintasunezkoak eta osasungarriak izatea oztopatzen duten zama eta arrazoiei buruz hausnartzea.
- Genero-estereotipoak, maitasun erromantikoaren mitoa eta gizonezkoen pribilegioak berrikustea.

Tailerraren bidez landuko diren gaitasunak: Gure egunerokoan bizi ditugun indarkeriak identifikatzea.

TAILERREAN PARTEKATUTAKOA

Tr3s Socialek gorputza lehenesten du lanean, ez duelako iragazkirik. Horregatik, gorpuztasunean oinarritutako tailer hau online formatuan egitea erronka bat da: distantziak eta hau guztia fisikoki ez partekatzeak zer esan nahi duen galdetzea eragiten du.

1. dinamika. Aurkezpen-erronda batekin hasi gara (izena, nola gauden, keinu batekin adierazi tailer honetan zertarako eman dugun izena). Hori ezinbestekoa da Tr3s Socialentzat, pertsonak baitira tailerraren funtsa. "Egitean" oinarritutako sistema batean funtzionatzen dugu, eta horren ondorioa da pertsonak ikusezin bihurtzen direla.

2. dinamika. Augusto Boalen hipnosi kolonbiarra praktikatu dugu, bikoteka. Pertsona batek eskua jartzen du bestearen aurpegi parean, eta mugitu egiten du (kasu honetan, kameraren objektiboan). Beste pertsonak mugimenduari jarraitzen dio. Amaitzean, hausnartu egin dugu. Zer egiten zaigu erosoagoa, norbaitek gu gidatzea edo guk gidatzea? Gure bizitzara ekarrita: Norbaitek gidatzen, zaintzen edo manipulatzeko gaitu? Gidariak gara? Jarrera horietakoren batek gatazka eragiten digute?

3. dinamika. Gatazka horietako batean pentsatu eta gorputz-mugimendu baten bidez adierazi dugu. Errepikatu eta aldatu egin dugu, zerbait positiboa eragiten digun beste jarrera edo mugimendu bat aurkitu arte. "Dosi homeopatikoa" bilatzea da asmoa, bizi dugun gatazka bakoitzean guretzat positiboa den hori. Taldean partekatu dugu zer hitz ekartzen digun gogora azken mugimendu horrek: bilakatu, bakea, laztana, hazkundea, kontrola, sormena, erresilientzia, irekitzea, uztea, mugak, askatzea.

Kudeatzen ez dakizkigun emozioek eragiten dute gatazka, eta irtenbidea eman behar zaie.

4. dinamika. Bikoteka, ondorengo hausnartu eta partekatu dugu: Nola ikusten dut nire burua? Nola uste dut ikusten nautela besteek? Zer animalia izan nahi dut, eta zer ezaugarri falta zaizkit horretarako? Gero, taldean partekatu dugu: Ba al dago nolakoa izan naitekeen edo ez esango digun zerbait edo norbait? Taldeak erantzun du izan daitezkeela gurasoak, estereotipoak, patriarkatua, gu, familia, lagunak, gure sinesmen-sistema, irakasleak... Tr3s Socialekoek esan dute ditugun mugak gure bizipenen eta behin eta berriz entzun ditugun esaldien ondorio direla. Horregatik, identifikatu eta deseraiki egin behar dira. Gainera, batzuetan ahaztu egiten zaigu ez garela uste dugun hori ere bagarela, dena daukagula denok, eta, beraz, aukera dezakegula.

5. dinamika. Gatazka bat behatuzetik abiatuta, gure dohainera bidaiatu egin dugula irudikatu dugu.

ERAIKI
Komunitate harremanak elkarbizitza gatazka

TRANSFORMACIÓN POSITIVA del CONFLICTO desde la experiencia corporal y artística

Tr3s SOCIAL
Natalia Vero

enrute.ilustrat@ile@gmail.com



visualización el viaje

... un LUGAR que me de **SEGURIDAD** me siento y **OBSERVO** sonidos colores movimientos **CONFLICTOS**

Veo una **CUEVA** entro, paseo ...



TODAS lo **TENEMOS** **TODO**

cuando lo **VEO** lo **PUEDO**

identificar y si lo **IDENTIFICO** lo **PUEDO**

deconstruir

Hezkidetzari ijito feministen begiradatik.

Tamara Claveria Jimenez | AMUGE

AURKEZPENA

AMUGE Euskadiko Emakume Ijitoen Elkarte da, eta 2003an sortu zuten emakume ijito eta ez ijito batzuek. Aitzindaria izan zen Euskadin. Elkartearen ibilbidean, emakume ijitoek dute protagonismoa, eta haiek osatzen dute zuzendaritza batzordea, beraiek baitira beren beharrak hobekien ezagutzen dituztenak. AMUGEek hainbat arlotan egiten du lan: hezkuntza, enplegua, berdintasuna, eragina, gazteria eta osasuna, besteak beste.

2012az geroztik, Tamara Clavería Jiménez da lehendakaria. Gizarte- eta hezkuntza-arloan prestakuntza eta esperientzia duen emakume ijitoa da: gizarte-integratioko teknikari titulua eta lan-orientazioko graduondokoa ditu, eta titulazio hori lortu duen Bizkaiko lehen emakume ijitoa da.

Aipatzekoa da 2006. urtetik gaur arte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berriztatzeko Sailarekin elkarlanean ari dela, ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko helburua duen Chalar Dur proiektuan.

TAILERRA

Hezkidetzari buruzko elkarrizketa, ijitoen begirada feminista batetik.

- Zertaz ari gara “Feminismo ijitoa” diogunean?
- Hezkuntza-sistema ez-ijitoen ikuspegitik eraikita dago, beraz, zer erronka ditu hezkuntza-komunitateak ijitoen begirada feminista txertatzeko?
- Topatzen ditugun oztopoak.
- “Eraikitzearen” ideiatik, parte-hartzaileentzako GAKOAK, proposamen praktikoak eta aholkuak.
- Kolektibitatea, indibidualismoari aurre egiteko.
- Bertaratutakoekin elkarrizketa: adibide praktikoak eskatu, ikasgeletan esku hartzeko gakoak emateko.
- Zer ekarpen egiten dute erreferente feministek eta nola eraiki beharko genuke iruditeria kolektiboa?
 - erreferenteak, adibideak
 - amona ijitoak

TAILERREAN PARTEKATUTAKOA

Laburpena:

Tailerra hasteko, ijitoek Europan, Espainian eta Euskal Herrian izan duten ibilbide historikoaren analisia egin du Tamara Claveriak. Irakurketa historiko baten bidez, ijitoekin eta bestelako kultura gutxituekin eskola integratzaileagoa izateko gaur egungo gakoak eskaini dizkigu. Izan ere, lurraldea, bizitza eta hezkuntza-eremuak partekatzen baititugu haiekin.

Tailerraren garapena:

Tamara taldearen aurrean aurkeztu da, bere identitatea eta bizi-ibilbidea aztertuz. Ondoren, "ijito" hitza entzutean burutik pasatzen zaigun lehenengo gauza idaztea proposatu digu, eta bakoitzak idatzitakoa partekatu dugu. Hitzak hauek izan dira: menderatutako kultura, gutxiengoa, saltzaile ibiltaria, komunitatea, familia, kultura, kolektibo marjinatua, kultura, flamenkoa, ezezaguna baina hurbilekoa, artea, dantza, ile luze-luzea, moldatu ezina... Tamarak, hitzak entzun ondoren, esan du ez direla gure gizarteak erantzungo lukeenaren isla. Paperarekin bola bat egiteko eskatu digu, eta botatzeko, egiazko deseraikitzerako bide zintzoa hasteko.

Tamarak dioenez, eskolak, ikaskuntza-iturri izanik, eremu segurua eta inklusiboa izan behar du ijitoentzako. Nola? Eskolako parte diren komunitate guztien hizkuntzak, historia eta kultura ikusaraziz.

Sarrera horren ondoren, Tamarak ijitoen historian zehar ibilbide bat egin digu, 1425. urtean Espainiara iritsi zirenetik hasita. Horrela, erantzun gabeko galdera askoren zergatiak azaldu dizkigu, eta, era berean, erantzun erromantizatuak argitara atera ditu, herri ijitoaren errealitate gordinarekin zerikusi gutxi dutenak.

Ondoren, feminismo ijitoaren ezaugarriak azaldu dizkigu, bai eta eskoletan inklusioa errazteko gakoak ere, ekintza-eremu desberdinetako beharrak eta aukerak zehaztuz: irakasleei, familiari edo komunitateari, instituzioari, generoari... dagokienez, eta, hala, aurre egiteko ijitofobiari eta oraindik nahikoa ezagutzen eta baloratzen ez den herri baten inguruko ezjakintasunari eta estigmari.

Amuge
 EUSKADIKO EMKOPRE
 LHOTEN ELKARTEA
 ASOCIACIÓN DE MUJERES Gitanas DE EUSKADI
 fundada en 2005



Tamara Claveria
 Presidenta Amuge

Hoy es el día de
LA LENGUA ROMANI
 5 noviembre

PELO LARGUÍSIMO
 FAMILIA
 COLECTIVO
 FLAMENCO
 CULTURA SUBALTERNIZADA
 VENDEDORES AMBULANTE
 MINORÍA

ESCRIBIR TODAS EN UN PAPEL LO PRIMERO QUE PENSÁIS AL OÍR

Ahora cogéis el papel y lo tiráis y os voy a contar cómo entendemos nosotras nuestra cultura

feminismo gitano

ESCUOLA
 VISIBILIZAR LA HISTORIA LA LENGUA LA CULTURA DE TODAS.

REVALORIZAR nuestra cultura

feminismo gitano

COLECTIVIDAD sobre INDIVIDUALISMO

Ésta es la idea de la mujer gitana

EDUCAR

EGIPTO MENOR → EGIPCIANO → GITANO

BANDERA PUEBLO GITANO
 Rueda de carro
 Cielo siempre nuestro techo
 El suelo nuestro caminar

Nuestro pueblo no es errante nos han obligado a serlo.

ORIGEN
 LA TEORÍA MÁS ACEPTADA ES QUE VENIMOS DE INDIA
 Llamo de misterio
 LEYENDAS

1425 LLEGAN AL ESTADO ESPAÑOL (primer documento escrito)
 S. XV EUSKAL HERRIA

OPRESIÓN SISTEMÁTICA LEGAL

LA GRAN REDADA 1749
 Las mujeres gitanas se resistían.

ABANDONAR

Lengua
 forma de vestir
 cultura
 la palabra gitano

antigitarismo
 RACISMO CONTRA GITANOS DESDE UNA SUPERIORIDAD CULTURAL

interculturalidad
 es invisible en la escuela

No somos un colectivo, somos un PUEBLO

ES MUY DIFÍCIL EL ACCESO AL TRABAJO PARA EL PUEBLO GITANO

EUSKERA + ROMANI
 ERROMINXELA

APRESAR A TODAS LAS PERSONAS GITANAS

SOFÍA KOVALEVSKAYA Matemática gitana
 GARMEN AMAYA Primera bailaora en pantalones
 REFERENTES POSITIVOS

ALGUNAS IDEAS PARA IMPLANTAR EN CENTROS ESCOLARES

CELEBRA EL CALENDARIO ROMANI
 17 mayo DÍA DE LA RESISTENCIA ROMANI
 8 ABRIL Día del pueblo gitano

TRABAJO EDUCATIVO CON LAS FAMILIAS
 Sin miedo
 Tolerancia cero al acoso escolar STOP

interculturalidad
 PROFESORADO FORMADO

misto aviten! (bienvenidos)
 ACERCAR EL ROMANES A LAS ESCUELAS

Norberaren intersekzioak identifikatu eta pribilegioen/zapalkuntzen kontzientzia hartzetik botere harremanen asimetrien lanketa.

Hiruki Larroxa

AURKEZPENA

Hiruki Larroxa sistema zisheteropatriarkala irauli eta jendarte eraldaketarako pentsamendu eta praktika transfeminista eta kritikoa sustatzea bilatzen duen kooperatiba da. Horretarako, gaur egungo jendarte eremuan ematen diren botere harremanen asimetrietan eta zapalkuntza sistemetan jartzen dute fokua, horien bazterretan geratzen diren errealitateen askatasunerako baldintzak sortuz eta harreman parekideak sustatuz. Eta horrela, norberaren, taldearen eta helburu emantzipatzaileen inguruan diharduten talde, elkarte eta eragileekin lan egiten dute.

TAILERRA

Tailerraren helburu orokor eta zehatzak:

Bakoitzak bere intersekzioak ezagutu eta horietan ematen diren menpekotasunak hausteko gakoak identifikatu.

Landuko diren gaitasunak:

- Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna
- Elkarbizitzarako gaitasuna
- Izaten ikasteko gaitasuna


TAILERREAN PARTEKATUTAKOA

Hiruki Larroxa kolektiboak botere harremanen asimetrien lanketa tailer bat proposatu digu, intersekzionalitatearen kontzeptua erdigunean kokatuz. Intersekzionalitatea tresna analitikoa eta politikoa da, gizartea konplexutasunean ikusteko marko bat. Bestalde, hezkidetzatik pedagogia feminista batera pasatu beharko genukeela ohartarazten digute, transgresioa, gatazka eta deserosotasunarekin lan egin dezagun.

Proposatutako dinamika: gure pribilegio/zapalkuntzen diagrama batean lan egin, ondoren denon artean eztabaidatzeko. Ardatz bezala galdera hau erabili dugu: zeintzuk dira gure pribilegio/zapalkuntzak bizitzako eremu ezberdinetan? Kontzeptu hauek eduki ditugu kontuan: zis-araua, generoa, genero adierazpena, desiraren orientazioa, klasea, ikasketa maila eta arraza.

ONDORIOAK

- Interseksionalitatea bizitzarako tresna analitiko bezala hartu beharko genuke. Pertsonalki, kontraesanak eta deserosotasunak sortzen ditu, baina aliantzak edo elkarlanak ere sortu ditzake.
- Fokua pribilegioetan jartzearen garrantzia erakutsi digute, eta ez bakarrik zapalkuntzetan. Pribilegioak ez ditugu errutik hartu behar, arduratik baizik, biktima eta biktimarioen logikatik ateraz eta irtenbide eraikitzaileagoak landuz.
- Argi ibili beharko genuke honako bi gauzekin: zapalkuntza/ pribilegioen testuinguruarekin eta marko makroekin (batzuetan, eskuan dugun mapa ez baita aurrean daukagun lurralde zehatza).
- Hezkuntza arloari helduz, interseksionalitateak irakaslearen kontzientzia kritikoa garatzen du. Irakaslearen boterea onartzeko eta nola erabiliko den hausnartzeko balio du.
- Bukatzeko, kontuan hartu behar dugu hezkuntza politikoa, estrukturatzailea eta sortzailea dela. Horregatik, interseksionalitatea hezkuntzan txertatu beharra dago.



@Bikitxub



7. ONDORIOAK

Kongresuan zehar, ekintza- eta metodologia-proposamen asko aurkeztu dira, baita erronka eta aholku asko ere, eta horiek guztiak atal desberdinetan jasota gelditu dira.

Argi geratu da pertsonen, esperientzien, kulturen eta geografien arteko topalekuak eta elkartrukerako espazioak funtsezkoak direla bizi-energia eta energia kolektiboa kargatzeko eta ikaskuntzak eta sareak sustatzeko. Zubiak eta elkarrizketak sortzeko borondatea dagoela, elkarri kontatzeko eta entzuteko gogoia dagoela. Ohartzen gara esperientzien aniztasuna aberasgarria dela, eta beharrezkoa dela bakarrik ez sentitzea bide honetan, non patriarkatua, arrazakeria eta horiek gudan eta gizartean eragiten dituzten indarkeriak deseraikitzen gabiltzan, eta harreman osasuntsuak eta errespetuzkoak eraikitzen.

Argi geratu da, halaber, espazio horiek hainbat formatutan egin daitezkeela —hitzaldia, mahai-ingurua, esperientzia-mahaia, tailerra, ipuina, antzerki-foroa, bertsoa—, distantziak eta urruntasunak gorabehera, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriei esker edo horien bidez. Nolanahi ere, funtsezkoa da espazio horiek pedagogia feministen praktikak izatea, planteamendutik hasita, baita plangintzan, antolaketan eta garapenean zehar ere.

Kongresuan gako orokor batzuk atera dira hezkidetza hezkuntza-praktika formal, ez-formal eta informalean ezartzeko. **Hemen laburbildu ditugu:**

1. Hezkidetza eta pedagogia feministak ez dira amets eta teoria hutsak; errealitatea, praktika eta konkretutasunak ere badira, eta etengabe eraikitzen ari gara, esperimendazioa, testuinguruetara egokitzea, kulturen arteko elkarrizketa, begirada interseksionala eta subjektuen protagonismoa abiapuntu hartuta.
2. Eraikitze horretan funtsezkoa da hezitzaileek egiten duten lana erreferente, motibatzaile eta mobilizatzaile gisa.
3. Hezkidetzari ekiteko, 4 elementu behar dira. Elementu horiek ez dira urrats lineal eta itxiztat hartzen, elkarrekin lotuta daude eta prozesu etengabeen daude:

- Deseraikitzea
- Trebatzea
- Harreman sozial eta sexual osasungarriak eraikitzea
- Harreman komunitarioak eta bizikidetzak eraikitzea

Deseraiki

Oro har, sexu-genero sisteman eta beste zapalkuntza-esparru hegemonikoetan jaiotzen, hazten eta gizarteratzen gaituzte (gara), eta askotan, ez gara ohartzen horrek gure gorputzetan, gorputzen bizipenetan eta gure pentsamenduan orbanak uzten dituela.

Deseraikitzeke, desmuntatu egin behar dira mugatzen eta estutzen gaituzten identitate horiek; izateko, egoteko eta erreakzionatzeko modu femeninoak eta maskulinoak markatzen dituzten harreman horiek, botere-asimetrian eta beldurretan edo errespetu faltan oinarritutako pertzepzioetan oinarritzen diren harremanak.

Era berean, identifikatu eta desikasi egin behar dira pertsonen bizitzan eta hezkuntza-sisteman eta -espazioetan eragin zuzena duten estereotipoak (sexuarekin, arrazarekin edo gure nortasuna osatzen duen beste edozein elementurekin lotutakoak).

Araua betetzeko edo araua ez betetzeagatik gertatzen diren aurreiritziak, diskriminazioak, barneko eta kanpoko indarkeria sotilak edo zuzenak erreproduzitzeari eta justifikatzeari utzi behar diogu.

Hezitzaile garen aldetik, gure neutraltasun ezaz jabetu behar gara, gure joera, pribilegio, oztopo, beldur eta desioak onartu behar ditugu, eta haien ardura hartu. Normaltasuna eta norma ulertzeko dugun modua zalantzan jarri behar dugu.

Trebatu

Trebakuntza funtsezko osagaia da deseraikitze-erakitze prozesuan. Bai norbanako mailan, bai maila kolektiboan, eta, batez ere, hezteko funtzioa duten pertsona, ekimen edo erakundeentzat da garrantzitsua.

Trebatu egin behar gara feminismoetan, kulturartekotasunean, interseksionalitatean, sexualitatean, gorputza eta artearekin lan egiten, pedagogia feministetan, hizkuntza inklusiboan, autodefentsa feministan.

Modu asko daude horretarako: irakurketa, behatzea, dagoeneko sortuta dauden materialak biltzea, ikastaro zehatzak, topaketak, autoezagutza tailerrak eta beste esperientzia batzuetan inspirazioa bilatzea, esaterako.

Trebakuntza horri esker, gure hezkuntza-praktika berrikusi eta beste leku batean kokatu ahal izango gara, pertsonekin beren osotasunean (gorputzak, sentimendu eta pentsamenduak, interseksioak) lotuko gaituzten ikuspegi metodologikoak eta tresnak eskuratuko ditugu eta laguntzeko ditugun gaitasunak indartu ahal izango ditugu.

Harreman sozial eta sexual osasungarriak eraiki

Sexu-hezkuntzak pertsona guztien garapen afektiboari lagundu behar dio, kontuan hartuta pertsonen identitate, helburu, aukera eta nahien aniztasuna.

Funtsezkoa da tratu onen eta harreman osasuntsuen kultura erotikoa eraikitzea. Tratu onak izateko, ezinbestekoa da bakoitzaren mugak eta sexualitatea adierazteko eta gauzatzeko moduak etengabe negoziatzea.

Haur eta gazteek argudioak eta proposamenak behar dituzte; beraiek protagonista diren eraikitze prozesu horretan, laguntzea dagokie hezitzaileei.

Neskekin lanean jarraitzeaz gain, garrantzitsua da haur ez-binarioekin eta mutilekin ere lanketak egitea. Mutilen kasuan, afektibitatea kudeatzeko, aurrena sistema patriarkalaren baitan dituzten pribilegioez eta presioez jabetu behar dira.

Hezitzaileek saihestu egin behar dute beren aurreiritziak proiektatzea eta beren ikuspuntua eta jakintza inposatzea. Hitza eman behar zaie haur eta gazteei, jakiteko zer dakiten eta zer nahi duten.

Eremu horretan gogoeta egiteko, hezteko eta esperimintatzeko, funtsezkoa da espazio seguru eta babestuak sortzea. Hori kontuan hartuta, hainbat formatu konbinatu eta probatu ditzakegu: genero-identitatearen araberako taldeak, talde mistoak, beste ezaugarri batzuen araberakoak, arbitrarioak...

Harreman komunitarioak eta bizikidetzak eraiki

Hezkidetzak komunitate osoa hartzen du barnean. Eraldatzera ausartzea eskatzen du, eta hori prozesu parte-hartzaile eta horizontalen bidez egitea.

Komunitatetzat hartzen ditugu haurrak eta gazteak, haien familiak, hezitzaileak eta hezkuntza-programan parte hartzen duten beste pertsona batzuk, inguruko kolektiboak, herriak eta gizarte erakundeak. Haien arteko zubiei esker, hezkidetzak proposamenak egokiak, eraginkorrak eta denboran eta emozionalki jasangarriak dira.

Kulturartekotasuna eta interseksionalitatea funtsezko ikuspegiak dira hezkidetzak proposamenak inklusiboak izan daitezen, zapalkuntza-esparrurik erreproduzitu ez dezaten eta parte hartzen duten pertsonen ikuspegi, behar, jakintza eta borondateetatik abia daitezen.

Hezkidetzak, harrera- eta bizikidetzak funtsezkoak dira planteamendu eta esku-hartze integralak (espazio fisikoetan eta harremanetan esku hartzea, datak eta ekintza jarraituak, materialak eta hizkuntza erabiltzea, gogoetarako, jolaserako eta esperimintaziorako proposamenak, trebakuntza eta eragina, etab.), zeharkakoak eta zehatzak egiteko. Garrantzitsua da adostuak izatea eta hitzetan ez gelditzea.

Martxan jartzeko ardura duten taldeek indartsuak izan behar dute, eta ardura-postuetan dauden langileak izan behar dituzte, motibatuta, eta kideak aktiboki zaintzen dituztenak.

Kongresuan esan eta egiaztatu bezala, ibilbide luzea egin dugu, eta dago egiteko, erdigunean bizitza, bizitza guztiak, jarriko dituen hezkuntza eraikitzekeo prozesu kolektiboan. Baina bide horretan ez gaude bakarrik, eta urrats esanguratsuak ematen jarraitzeko gakoak ditugu. Batez ere, itxaropena ematen digu haur, gazte eta bazterretako pertsona eta herri guztiek duten disidentziarako, lotsagabekeriarako eta sorkuntzarako gaitasunak, zalantzan jartzeko zurtasuna, kapazitismoa, adinkeria eta binarismoa. **Umoretik, jolasetik eta ustekabetik elkar aurkitu eta eraiki nahi dugu, esperientzien, jakintzen eta gorputzen aniztasunetik.**

Assumpta Ayerdi Olaizola

HEZKIDETZA ETA PEDAGOGIA FEMINISTEN KONGRESUA

Argitalpena doan deskargatzeko:

www.hezkidetza.calcutaondoan.org

www.calcutaondoan.org

www.ikertze.org



IKERTZE